

NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2023ko apirilaren 28a

59. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Nafarroako 2019-2025 Desgaitasun Planaren jarduketa-eremuetan ezarritako helburuen betetze-mailari buruzko galderak. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- 10-22/PES-00373. Galdera, Musikako ikasketa profesionalak egiteko Nafarroatik kanpora joaten diren ikasleei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- 10-22/PES-00422. Galdera, Ortzadar dantza-taldeak Argentinan egindako ekitaldi batean Espainiako bandera ez jartzeko egindako exijentziari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- 10-22/PES-00447. Galdera, babes ofizialeko etxebizitzaren ordainketarako jasotako dirulaguntzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- 10-22/PES-00462. Galdera, 2021-2025 aldirako Nafarroako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Planari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- 10-22/PES-00479. Galdera, Jardunbide Onen eta Gardentasunaren Batzordearen eraketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- 10-22/PES-00481. Galdera, Osasun Zientzien Fakultatearen eraikina egiteko lehiaketako proiektu garaileari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- 10-22/PES-00484. Galdera, erosketa publiko berritzaileari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- 10-22/PES-00489. Galdera, Justizia Jauregiko espazio ezari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- 10-22/PES-00598. Galdera, Hiritartasunari, Bizikidetzari eta Aniztasunari buruzko Unesco Katedraren esparruan migratzaileen gizarteratzea sustatze aldera Departamentuaren eta NUPen arteko lankidetzahitzarmenaren aurrekontu-partida 60.000 euroan handitzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- 10-22/PES-00599. Galdera, Kalamua ikertzeko Nafarroako Elkartearen proiektuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- 10-22/PES-00601. Galdera, Sodena, CEN eta Albyn Medicelek soberan gelditutako maskarei irtenbide bat emate aldera izandako bilerei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).

- 10-22/PES-00602. Galdera, Pilar Gogorcena eguneko zentroari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- 10-22/PES-00603. Galdera, 2019an, 2020an eta 2021ean enplegu-zentro berezietan lanean aritutako pertsona desgaituei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- 10-22/PES-00604. Galdera, El Vergel zahar-etxearen inguruan bizi diren, 65 urtetik gorakoak diren eta desgaitasun intelektuala duten pertsonen arreta-beharretara egokitzearen ebaluazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- 10-22/PES-00605. Galdera, desgaitasuna duten pertsonak artatzeko jarraibideen inguruan Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren langileek 2021ean egindako prestakuntza-jardunaldiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- 10-22/PES-00606. Galdera, 2021eko Plan Operatiboan jasotakoari jarraikiz, desgaitasuna duten pertsonen enplegua sustatzeko kontratazio publiko soziala eta arduratsua bultzatzera bideratutako aldaketaren 2. neurriari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- 10-22/PES-00607. Galdera, desgaitasuna duten pertsonendako prestakuntza-programa espezifikoaren diseinua orientatzeko lan-merkatuan dagoen eskariari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- 10-22/PES-00608. Galdera, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren lan-orientazioa eta prestakuntza-programak desgaitasuna duten pertsonen beharretara eta gaitasunetara egokitzeak esparruan espezializatutako enpresen prospekzio-planei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- 10-22/PES-00609. Galdera, 2021eko Desgaitasuneko Plan Operatiboaren 4. aldaketaren 1. neurria betetze aldera Osasun Mentaleko Kudeatzaitzaren eta Koordinazio Soziosanitarioko Atalaren ordezkariak egindako bilerei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
- 10-22/PES-00610. Galdera, desgaitasuna duten pertsonak merkatu arruntean laneratzea sustatzera bideratutako dirulaguntzen deialdietan 2019an exekutututako aurrekontuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).
- 10-22/PES-00611. Galdera, 2021eko Desgaitasuneko Plan Operatiboaren jarraipen-txosteneko 3. taulari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.).
- 10-22/PES-00612. Galdera, laguntza-beharrizan handietarako Tuterako etxebizitza abian jartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (31. or.).
- 10-22/PES-00613. Galdera, 2021eko Desgaitasuneko Plan Operatiboaren 3. aldaketaren 1. neurriaren parte diren desgaitasuna duten pertsonen arreta emateko baliabideen lagungarri diren 15 etxebizitza-plazen kokapenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (32. or.).
- 10-22/PES-00614. Galdera, enplegu-zentro bereziei, laneratze-enpresei eta abarri kontratuak erreserbatzeko betebeharra bideratzeko eta ezagutarazteko webgune espezifiko berriari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (33. or.).
- 10-22/PES-00616. Galdera, Aranzadi Zientzia Elkarteak “Sorioneku” idazkuna duen eskua erregistratu izanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (34. or.).
- 10-22/PES-00617. Galdera, eraldaketa eta espezializazio digitaleko estatuko lau proiektu garatze aldera 16 milioi baino gehiago inbertitzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (35. or.).
- 10-22/PES-00618. Galdera, urte hau amaitu aurretik Nafarroako eta Espainiako Gobernuak beren zerbitzu publikoetan arreta presentzialaren maila pandemiaren aurreko mailetara igo dezaten premiatzen dituen mozioaren betetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (38. or.).
- 10-22/PES-00619. Galdera, 2021-2025 aldirako Nafarroako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Planari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (40. or.).
- 10-22/PES-00620. Galdera, Inklusio eta Gaikuntza Digitalaren 2021-2025 aldiko Planari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (41. or.).
- 10-22/PES-00621. Galdera, “G10001 G1100 4309 322300 ADITECH Fundazioa. Adimen artifizialaren sustapena” partidari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (44. or.).
- 10-22/PES-00622. Galdera, Sodena, CEN eta Albyn Medicalen arteko hitzarmenaren esparruan maskarak erosteari dagokionez “eskarien izapidetzeak eragindako gastuen” 2.564.354 euroen banakapenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (46. or.).

F saila:
GALDERAK

Nafarroako 2019-2025 Desgaitasun Planaren jarduketa-eremuetan ezarritako helburuen betetze-mailari buruzko galderak.**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderen erantzunak, Foru Diputazioak emanak, Nafarroako 2019-2025 Desgaitasun Planaren jarduketa-eremuetan ezarritako helburuen betetze-mailari buruzkoak. Galderak 2022ko abenduaren 16, 23, 27 eta 28ko 144., 149., 150. eta 151. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren, hurrenez hurren.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Jorge Esparza Garrido jaunak hainbat galdera egin ditu (10-22/PES-00355etik

372ra, 374tik 421era, 423tik 446ra, 448tik 461era, 463tik 478ra, 480, 482, 483, 485etik 488ra eta 490etik 597ra) Nafarroako 2019-2025 Desgaitasun Planaren jarduketa-eremuetan ezarritako helburuen betetze-mailari buruz. Honako hau da Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako kontseilariak informatu beharrekoa:

Desgaitasun Planaren jarraipen-txostenari dagokionez, hura egiteko beharrezkoa den informazioa biltzen ari da. Behin amaituta eskuragarri egonen da.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 9an

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

10-22/PES-00373. Galdera, Musikako ikasketa profesionalak egiteko Nafarroatik kanpora joaten diren ikasleei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Musikako ikasketa profesionalak egiteko Nafarroatik kanpora joaten diren ikasleei buruzkoa. Galdera 2022ko abenduaren 16ko 144. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak idatziz aurkeztu duen 10-22/PES-00373 galdera dela-eta, Hezkuntzako kontseilariak honako honen berri ematen du:

Hezkuntza Departamentuak ez ditu eskura distantzia geografikoa dela-eta musika-irakaskuntza profesionalak Nafarroatik kanpo egin behar dituzten ikasleen datu zehatzak. Beraz, ez dakigu zenbat musika-eskolatetik etor daitezkeen ezta zein kontserbatorio profesionaletan ere egin daitezkeen matrikula horiek.

Derrigorrezko ikasketen ondoko unibertsitatez kanpoko ikasketak egiten dituzten ikasleendako urteroko beken deialdi orokorrari esker, musika-kontserbatorio profesionaletako ikasleak deialdi horietara aurkeztu daitezke balizko laguntzak jasotze aldera.

Edonola ere, informazio gisa, jarraian azalduta dator Iruñeko, Tarazonako, Irungo eta Calahorrrako kontserbatorio profesionaletako matrikula-tasei buruzko azterlan konparatibo bat.¹

	Iruña	Tarazona (Aragoi)	Irun	Calahorra (Errioxa)
Espedientea irekitzea	29,30 €	25 €	(Aldakorra)	22,52 €
Irakasgaika	52,80 €	59 €		55,43 €
Gainditu gabeko irakasgaiak	61,60 €	64 €		63,76 €
Sarrera-probak	18,50 €	45 €	52,20 €	40,92 €
Zerbitzu Orokorak	11,90 €			8,87 €

Aipatu kontserbatorioetan pianoko ikasketa profesionalak egiteko guztizko kostuaren adibidea

(1. mailaren kasuan, irakasgaiez gain, ² espediente-irekiera eta sarrera-proba gehitu behar dira):³

	Iruña	Tarazona (Aragoi)	Irun	Calahorra
Kostua (1. maila)	259 €	306 €	1379,15 €	285,16 €
Kostua (2. maila)	211,2 €	236 €	1326,95 €	221,72 €
Kostua (3. maila)	158,4 €	177 €	1450,70 €	166,29 €
Kostua (4. maila)	211,2 €	177 €	1450,70 €	166,29 €
Kostua (5. maila)	316,8 €	354 €	1607,25 €	332,58 €
Kostua (6. maila)	264 €	354 €	1607,25 €	332,58 €
Guztira	1420,6 €	1604 €	8822 €	1504,62 €

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 9an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

¹ Lehen koadroan jasota dator herri bakoitzerako informazioa zein estekatan lortu den.

² Prezioak ere aldatzen dira araudi bakoitzak maila bakoitzean ezartzen duen irakasgai-kopurua dela-eta.

³ Tarifa normalak aplikatzen dira, hobaririk gabe.

10-22/PES-00422. Galdera, Ortzadar dantza-taldeak Argentinan egindako ekitaldi batean Espainiako bandera ez jartzeko egindako exijentziari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Ortzadar dantza-taldeak Argentinan egindako ekitaldi batean Espainiako bandera ez jartzeko egindako exijentziari buruzkoa. Galdera 2022ko abenduaren 23ko 149. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak (10-22/PES-00422) idatzizko galdera egin du. Hauxe da horri buruz Herritarrekiko Harremanetako kontseilariak ematen duen informazioa:

Nafarroako Gobernua jakitun da abenduaren 3an, Nafarroaren Egunaren ospakizunaren harira, ekitaldi bat egin zela Rosarioko Nafar Biltokian, zeinetan Ortzadar dantza-taldeak emanaldi bat eskaini baitzuen. Nortasun juridiko berekia duten entitateak direnez, erabaki zuten ekitaldi hori egi-tea Nafar Biltokiko zuzendaritza batzordeak eta elkarteak adostutako baldintzen arabera, bi entita-

teek adostutakoarekin bat; hori horrela, Nafarroako Gobernuak ez zuen inolako ardurarik horretan.

Nafarroako Gobernuko ordezkariak erakunde-ari egindako bisitan, Mendozan egin zen Kolektibitateen Topaketaren barruan, jakin zuten Argentinako Nafar Biltoki guztiek poz handiz hartu zutela Ortzadar taldeak zentroetan egindako bira. Hala egin zuten publiko topaketaren amaiera-afarian, zeinetan Argentinako Nafar Biltokietako zuzendaritza batzordeetako lehendakari guztiek opari bat eman zieten Ortzadar taldeko ordezkariari, egindako lana eskertzeko asmoz. Ondoren, Buenos Airesko Nafar Biltokiak posta elektronikoko bidez jakinarazi zion Nafarroako Gobernuari eskertu egiten zuela Ortzadar taldeak egindako bisita. “Jardueretan parte hartu duten gazteak oso gustura geratu dira eskaini zaizkien jarduerekin. Gure uste apalean, taldeen arteko integrazio ederra egon da. Era berean, eskerrak eman nahi dizkiogu Nafarroako Gobernuari ekimen kulturalen bidez gure loturari eusteko ekimen honengatik. Espero dugu eroso egon izana gure zentroan. Etorkizunean elkar ikusiko dugulakoan, Buenos Airesko Nafar Biltokiko zuzendaritza batzordeak goraintziak eman nahi dizkizue”.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 17an

Herritarrekiko Harremanetako kontseilaria: Ana Olló Hualde

10-22/PES-00447. Galdera, babes ofizialeko etxebizitzaren ordainketarako jasotako dirulaguntzari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Patricia Perales Hurtado andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, babes ofizialeko etxebizitzaren ordainketarako jasotako dirulaguntzari buruzkoa. Galdera 2022ko abenduaren 23ko 149. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

El Consejero de Ordenación del Territorio, Vivienda, Paisaje y Proyectos Estratégicos, en relación con la pregunta escrita 10-22/PES-00447, formulada por la parlamentaria doña Patricia Perales Hurtado, adscrita al Grupo Parlamentario EH Bildu Nafarroa, tiene el honor de informarle lo siguiente:

Después de que el Departamento de Economía y Hacienda cambiara el criterio sobre el trata-

miento fiscal de las subvenciones, el Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda, Paisaje y Proyectos Estratégicos adoptó rápidamente el criterio de excluir para el cómputo de los ingresos familiares ponderados en las actuaciones protegibles en materia de vivienda los ingresos obtenidos por las subvenciones por arrendamiento de viviendas incluidas dentro del sistema público de alquiler. Criterio que se aprobó legalmente mediante el artículo 16 del Decreto-Ley Foral 1/2022, de 13 de abril, por el que se adoptaron medidas urgentes en la Comunidad Foral de Navarra en respuesta a las consecuencias económicas y sociales de la guerra en Ucrania.

Es cuanto tengo el honor de informar en cumplimiento del artículo 194 del Reglamento del Parlamento de Navarra

En Pamplona, 17 de enero de 2023

El Consejero de Ordenación del Territorio, Vivienda, Paisaje y Proyectos Estratégicos: José María Aierdi Fernández de Barrena

10-22/PES-00462. Galdera, 2021-2025 aldirako Nafarroako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Planari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, 2021-2025 aldirako Nafarroako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Planari buruzkoa. Galdera 2022ko abenduaren 23ko 149. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, 2021-2025 aldirako Nafarroako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planari buruzkoa (10-22/PES-00462). Hona Nafarroako Gobernuo Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak horretaz ematen duen informazioa:

2021-2025 aldirako Nafarroako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planerako aurreikusitako aurrekontua honako hau da:

	NAFARROAKO ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA PLANAREN AURREKONTUA					
	2021	2022	2023	2024	2025	GUZTIRA
2021-2025 aldirako Nafarroako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren aurrekontu globalaren estimazioa, milioi eurotan						
Nafarroako Gobernuak Nafarroako Aurrekontu Orokorren gainean egindako ekarpenaren ehunekoaren estimazioaren batura, milioi eurotan	160,07	171,73	181,86	194,65	208,24	916,55
I+G arloko inbertsio pribatuaren estimazioa milioi eurotan	240,90	267,81	294,09	326,36	362,28	1.491,44
Estatuak eta EBk I+G+b-rako egindako ekarpenen ehunekoaren estimazioa Nafarroako Aurrekontu Orokorren gainean, milioi eurotan	72,05	75,29	78,68	82,22	85,93	394,17
Urteko guztizko aurrekontuaren estimazioa, milioi eurotan	473,02	514,83	554,63	603,23	656,45	2.802,16

Jarraian, aurrekontu hau osatzen duten hiru ildoetako bakoitza zenbatesteko egindako kalkuluak zehazten da:

a) Nafarroako Gobernuaren ekarpena Nafarroako Aurrekontu Orokorren gainean

(Nafarroako Aurrekontu Orokorrak)

Nafarroako Gobernuaren I+G+b arloko inbertsio publikoko helburuak Nafarroako Aurrekontu Orokorren gainean Nafarroako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren inplementazio-epaen zehaztuta datoz horri dagokionez Zientzia eta Teknologiako 15/2018 Foru Legeak 2025erako ezartzen dituen portzentaje-helburuetan. Beraz, Nafarroako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planean ezartzen den konpromisoa da Foru Lege horretan I+G+b arloan ezarritako inbertsio publiko-

ko ehunekoak lortzea. Honako hauek osatzen dute Nafarroako Gobernuaren inbertsio publikoko ehunekoa I+G+b arloan Nafarroako Aurrekontu Orokorren gainean:

1. I+G+b-ren sustapenerako ehunekoa.
2. Zerga-deskontuaren ehunekoa.

Alabaina, Foru Legearen portzentaje-helburuak inbertsio publikoaz bezainbatean hala unibertsitateetan nola I+G+b arloaren sustapenean aurretiaz lortu eta gainditu dira jada. Ondorioz, Nafarroako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planak I+G arloko inbertsio-helburu batzuk planteatzen ditu Nafarroako Aurrekontu Orokorrez bezainbatean, Legean aurreikusitakoak baino handiagoak. Taula honetan jasota daude:

Nafarroako Aurrekontu Orokorrei dagokienez	Foru Legearen helburuak	Datu errealak	Nafarroako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren helburuak				
			2025	2020	2021	2022	2023
Unibertsitateen ehunekoa Nafarroako Aurrekontu Orokorren gainean	1,5	1,88	2,00	2,00	2,00	2,00	2,00
I+G+b-ren sustapenerako ehunekoa Nafarroako Aurrekontu Orokorren gainean	1,60	1,45	1,58	1,60	1,65	1,7	1,75
Zerga-deskontuaren ehunekoa Nafarroako Aurrekontu Orokorren gainean	1,00	0,71	0,77	0,83	0,88	0,94	1,00
Nafarroako Gobernuak Nafarroako Aurrekontu Orokorren gainean egindako ekarpenaren ehunekoaren batura	4,10	4,04	4,35	4,43	4,53	4,64	4,75
Unibertsitateen ehunekoaren estimazioa Nafarroako Aurrekontu Orokorren gainean, milioi eurotan		69,44	73,70	78,38	80,29	83,90	87,68
I+G+b-ren sustapenerako ehunekoaren estimazioa Nafarroako Aurrekontu Orokorren gainean, milioi eurotan		53,61	58,07	61,47	66,24	71,32	76,72
Zerga-deskontuaren ehunekoaren estimazioa Nafarroako Aurrekontu Orokorren gainean, milioi eurotan		26,27	28,30	31,88	35,33	39,43	43,84
Nafarroako Gobernuak Nafarroako Aurrekontu Orokorren gainean egindako ekarpenaren ehunekoaren estimazioaren batura, milioi eurotan		149,32	160,07	171,73	181,86	194,65	208,24

- Unibertsitateetan egindako inbertsioen datuak kalkulatzeko batu egin dira NUP finantzatzeko hitzarmena eta Tuterako eta Iruñeko UHU-Neko zentro atxikien finantzaketa.

- I+G-ren sustapenerako datuak kalkulatzeko batu egin dira Garapen Ekonomiko eta Enpresariako Departamentuko eta Unibertsitate, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuko 4673 kodifikazio funtzionala duten partidak (Ikerketa eta garapen teknologiko industrialak), Osasun Departamentuko 4651 funtzionala (Osasun ikerketa) eta Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuko 4674 funtzionala (Nekazaritzako eta oihaneko ikerketa eta esperimentazioa).

- Zerga-deskontuen datuak Nafarroako Aurrekontu Orokorren onura fiskalen aurrekontuaren partidatik datoz (3.4.3. I+G+b).

Berdez daude datu errealak, 2020ko eta 2021eko Nafarroako Aurrekontu Orokorren gainean kalkulatuak (Nafarroako Aurrekontu Orokor ez finantzarioa, ezta administrazioen arteko transferentziak ere). Gainerakoa estimazioak dira ehunekoetan eta milioi eurotan (M€), 2022., 2023., 2024. eta 2025. urteetarako Nafarroako Aurrekontu Orokorren estimazio baten gainean kalkulata, urteko % 4,5eko igota oinarrituta:

Nafarroako BPGari dagokionez I+G arloko inbertsio pribatuaren ehunekoaren estimazioa BPGarekiko Nafarroa	Datu errealak		Nafarroako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren helburuak			
	2020	2021	2022	2023	2024	2025
	1,21	1,15	1,32	1,44	1,57	1,70
<i>I+G arloko inbertsio pribatuaren estimazioa milioi eurotan</i>	247,3	255,02	267,81	294,09	326,36	362,28

Enpresen gastua I+G arloan 2020an 247,3M € izan zen (Iturria:

Estatistikako Institutu Nazionala, INE), eta 2021ean, 255,02 M € (Iturria: INE), urteko % 3,1eko hazkundea.

c) Estatuaren eta Europar Batasunaren ekarpenak I+G+b arlorako.

Zientzia eta Teknologiari buruzko 15/2018 Foru Legeak ere ezartzen ditu portzentaje-helburu batzuk Estatu Administrazio Orokorretik (EAO) eta Europar Batasunetik (EB) I+G+b arlorako funt-

Nafarroako Aurrekontu Orokorrak (ez finantzarioa, ezta administrazioen arteko transferentziak ere)	milioiak (€)
2020	3.694,10
2021	3.676,37
2022rako estimazioa	3.841,80
2023rako estimazioa	4.014,68
2024rako estimazioa	4.195,34
2025erako estimazioa	4.384,13

b) Inbertsio pribatua I+G+b arloan

I+G+b arloko inbertsio pribatua estimatu da Europar Batasunak ezarritako helburuarekin bat, zeina jasota baitator Zientzia eta Teknologiari buruzko Foru Legean, hau da, 2030ean I+G arloko inbertsio publiko-pribatua Nafarroako BPGaren % 3 izatea, zeinetan inbertsio publikoa heren bat edo BPGaren % 1 izanen baita, eta inbertsio pribatua bi heren edo BPGaren % 2. BPGarekiko I+G arloko inbertsio pribatua handitzea estimatu da Nafarroako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren aldirako, aintzat hartuta Foru Legeak eta Nafarroako S4 estrategiak 2025erako ezarritako BPGarekiko I+G+b arloko inbertsio-helburuak.

sak lortzeko, Nafarroako Gobernuak bere funtsekin egiten duen I+G+b arloko inbertsio publikoa osatze aldera.

Estatuko eta Europako finantzaketaren arloan Foru Legeak dituen portzentaje-helburuak ere nabarmen gaintu dira 2020an; hortaz, Nafarroako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren aldirako helburutzat ezarri da Estatu Administrazio Orokorretik eta Europar Batasunak egiten duten ekarpen-portzentajeari eustea, jada lortuta koaren antzekoa baita.

Nafarroako Aurrekontu Orokorrei dagokienez	Foru Legearen helburuak		Datu errealak	Nafarroako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren helburuak				
	2020	2025		2020	2021	2022	2023	2024
Estatuak eta EBk Nafarroako I+G+b-rako egindako ekarpenen ehunekoa, Nafarroako Aurrekontu Orokorren gainean	0,4	0,4	1,96	1,96	1,96	1,96	1,96	1,96
Estatuak eta EBk I+G+b-rako egindako ekarpenen ehunekoaren estimazioa Nafarroako Aurrekontu Orokorren gainean, milioi eurotan			72,54	72,05	75,29	78,68	82,22	85,93

Honako iturri hauetatik datoz ekarpen horiek:

- Estatuko Administrazio Orokorren ekarpena (Iturria: Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza-ko Informazio Sistema, SICTI).
- Horizonte 2020 programaren ekarpena (Iturria: Garapen Teknologikorako eta Berrikuntza-rako Zentroa, CDTI).

Zein da orain arte mobilizatutako zenbateko erreala eta inbertsio publikoaren eta inbertsio pribatuaren arteko banaketa?

Inbertsio errealari buruz eskura ditugun datuak Nafarroako Aurrekontu Orokorretan esleitutako kopuruetatik datozenak dira. Honako hauek dira 2020, 2021 eta 2022. urteei dagozkienak:

1. taula: Nafarroako Gobernuaren ekarpena I+G+b arloa sustatzeko Nafarroako Aurrekontu Orokorren bidez.

NAFARROAKO GOBERNUAREN EKARPENA, MILIOI EUROTAN	2020	2021	2022
Unibertsitateak	69,45	73,71	78,38
I+G+b-ren sustapena	53,62	58,07	72,33
Zerga-deskontuak	26,28	30,12	27,94
NAFARROAKO GOBERNUAREN EKARPENA, GUZTIRA	149,34	161,90	178,65

2. taula: I+G+b arloko Estatuko eta Europako itzulkinak (Iturria: SICTI eta CDTI)

ESTATUKO ETA EUROPAKO ITZULKINAK, MILIOI EUROTAN	2020	2021
Estatuko deialdietako laguntzak (*)	50,06	Oraindik ez dago daturik
Horizonte 2020 eta Horizonte Europa	19,43	15,60
ESPAINIA ETA EUROPA, GUZTIRA	69,49	-

(*) Honako hauek emandako laguntzak biltzen ditu: Ikerketarako Estatuko Agentzia, CDTI, Carlos III.a Osasun Institutua eta gainerako ministerio-departamentuak eta erakunde atxikiak. Nafarroako Gobernuak ez ditu sortu ezta kudeatu ere I+G+b arloko inbertsio pribatuaren datuak; INEK Estatu osoan egindako inkestaren datuak erantsi dira; beraz, estimazio estatistikoak dira:

3. taula: I+G arloko barne gastua, exekuzio-sektoreka (Iturria: I+G arloko inkesta, INE)

GASTUAREN EXEKUZIOA EXEKUZIO-SEKTOREKA	2020		2021	
	MILIOIAK (€)	% (*)	MILIOIAK (€)	%
Sektore pribatua	247,29	67,5	255,02	65,4

(*) INEK estimatutako guztizkoaren gaineko ehunekoa.

Azken gogoetak:

2019tik, Nafarroako Gobernuari dagokion I+G arloko inbertsioa % 21,23 handitu da; 2019an 147,36 milioi euro zen, eta 2022an, 178,65 milioi euro.

Nafarroako, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Planari dagokionez, nabarmendu behar da 2021ean planak 160,07 milioi euroko inbertsioa aurreikusten zuela, Nafarroako Gobernuaren aurrekontuaren % 4,35; planifikatu eta exekututakoak guztira 161,9 milioi euro jo du, % 4,40.

2022an, Nafarroako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planean 171,73 milioi euro aurreikusten ziren, % 4,43, eta guztira 178,65 milioi euro egon dira eskuragarri, % 4,55.

Beraz, bi urte horietan Nafarroako Gobernuak I+G+b arloan egindako inbertsioa handitu da

Nafarroako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planean hasiera batean aurreikusitakoarekin alde-ratuta.

Gaur egun, Nafarroako Gobernuak jakitun da I+G+b arloa funtsezkoa dela Nafarroaren hobekuntza sozioekonomikorako eta etorkizunerako, eta horregatik biztanle bakoitzeko 591,9 euro inbertitzen ditu urtero; hori horrela, Espainian hirugarren postuan gaude.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 17an

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Juan Cruz Cigudosa García

10-22/PES-00479. Galdera, Jardunbide Onen eta Gardentasunaren Batzordearen eraketari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Arantza Izurdiaga Osinaga andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Jardunbide Onen eta Gardentasunaren Batzordearen eraketari buruzkoa. Galdera 2022ko abenduaren 27ko 150. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko martxoaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Arantxa Izurdiaga Osinaga andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (PES-00479); horren bidez, honako informazio hau eskatzen dio Nafarroako Gobernuari:

Foru parlamentari honek egindako galderari (PES-00359) emandako idatzizko erantzunean, Nafarroako Gobernuak agindu zuen behar diren izapide eta prozedurei ekinen zela Jardunbide Onen eta Gardentasunaren Batzordea eratu zedin 2022an, Nafarroako Poliziei buruzko aza-

roaren 19ko 23/2018 Foru Legearen 7. artikuluan ezarritakoa betez. Hori dela-eta, honako hau jakin nahi dut:

Zer izapide eta jarduketa egin ditu Nafarroako Gobernuak 2022an 23/2018 Foru Legearen 7. artikuluan aurreikusitako Jardunbide Onen eta Gardentasunaren Batzordea eratzeko konpromisoa betetze aldera?

Dakizunez, 2023ko otsailaren 17an akordioa lortu zen Funtzio Publikoaren Mahai Orokorrean, Foruzaingoko lanaldiari, ordutegiei eta ordainsariei buruzko erregelamenduan jasotzen diren zenbait alderdi direla-eta. Akordio hori gehiago sindikal ia osoak berretsi zuen, eta horren ondorioz, besteak beste, hobekuntza objektiboa lortuko da foruzainen lan-baldintzetan, eta Foruzaingoak baliabide gehiago edukiko ditu eskura.

Arestian esandakoa eta polizien erregelamenduan ezarritako beste prozedura batzuen bidez lortu diren bestelako aurrerabide batzuk alde batera utzita, Nafarroako Poliziei buruzko azaroaren 19ko 23/2018 Foru Legearen 7. artikuluan ezarritakoari jarraikiz sortutako organo hori –teknikoa, kanpoko eta kontrolekoa– osatu behar duten kideen proportzionaltasuna

aztertzen ari da zerbitzuaren organo kudeatzailerak. Bitartean, agindutakoa zehaztasunez eta zuhurtziaz jorratze aldera, adierazi behar dizut eskatzen didazun informazioa zehaztuta dagoenean oso-osorik igorriko dizudala eta argitaratuko dela.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2023ko martxoaren 17an

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguía

10-22/PES-00481. Galdera, Osasun Zientzien Fakultatearen eraikina egiteko lehiaketako proiektu garaileari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Arantza Izurdiaga Osinaga andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Osasun Zientzien Fakultatearen eraikina egiteko lehiaketako proiektu garaileari buruzkoa. Galdera 2022ko abenduaren 27ko 150. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Arantza Izurdiaga Osinaga andreak idatziz erantzuteko galdera egin du NUPeko Osasun Zientzien Fakultatearen eraikinari buruz (10-22/PES00481). Hona Nafarroako Gobernuako Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Honako hauek dira Osasun Zientzien eraikineren eraikuntza-proiektuaren aldaketak:

a) Instalazioen bosgarren solairua kentzea

Ondorioak:

- Fatxaden erremate-garaieraren murrizketa, eta horren ondorioz, horien azaleraren murrizketa.

- Klimatizazio-gailuak paratzean altzairuzko egitura-sistemak kentzea.

- Errematean aireztapen periferikoaren (lamak) xehetasunak sinplifikatzea.

- Sandwich-panelen estalki-sistema kentzea plaka fotovoltaikoak jartzeko, eta horien ordez

euskarri estandarrak jartzea. Altzairu herdoilgaitzeko teilatu-hodiak kentzea eta euri-uren hustuketa-sistema berriz diseinatzea.

- Goragailuen kasetoiaren euskarria nibelean berriz diseinatzea, hozteko makinak jartzeko.

b) Instalazioak sotoko solairuan birkokatzea

Ondorioak:

- Aprobetxamenduaren optimizazioa, aparkaleku-plazak murriztuta. Guztira 35 plaza kokatzen saiatuko da.

- Aire-instalazioak osorik birdiseinatzea, birkokatzeke.

- Aireberritzeko patioak berriz diseinatzea solairu guztietan, klimatizazioaren banaketa sototik egin dadin, eta ez estalkitik.

- Beheko solairua: Anomiako eremu komunitan aireberritzeko patioen pasabidea berriz diseinatzea, korridore-eremuan eta fatxada-eremuan, afektazio funtzionalik gabe, satora aire-sarbidetako lortzeko. Aireberritzeko patio gehigarriak sartzea.

- Armairu-eremuen birmoldaketa 1. solairutik 3.era, berrien ondorioz.

- Sotoko solairua berriz diseinatzea: klimatizazio-gailu-eremu berri bat gaitzea.

- Lehendik dauden eremuak aldatzea, berdegenerantz leihoak dituen aparkalekuaren balizko berrerabilpenerako.

- Arriskuko lokalen birkokapena.

c) 4. solairuaren behin-behinekotasuna

NUPek hala eskatuta, laugarren solairua gar- den utziko da, proiektatutako Simulazio Zentroari

dagokion antolamendurik gabe, eta gerora egokitze-ko erabilgarri egonen da.

Fatxaden itxiturak eta zoladura, ordea, eginen dira. Era berean, gainerako solairuak zeharkatuko dituzten eta etorkizunean erabili ahal izanen diren instalazioak jarriko dira.

d) Lanik ez egitea egungo eraikinean

NUPeK hala eskatuta, proiektutik kendu dira liburutegia egokitze-ko jarduketak, egungo erizaintza-erakinean.

e) Egitura-sistemaren aldaketak.

Ondorioak:

- Hozteko makinak birkokatzearen ondorioz estalki-solairuan karga-aldaketen kalkuluak egiaztatzea.

- Aireberritzeko patioen antolaketa berriak eragindako egitura-solairuen aldaketak.

- Alternatibak aztertzea, zurezko egituraren barruan, merkatuaren egoera dela-eta erabilgarritasuna erraztu dezaketen sistemak sartzeko, bai forjatuetarako, bai habe eta zutabeetarako.

f) Aldaketak eraikuntza-sistemetan.

Ondorioak:

- Fatxadak osatzen dituzten panelen sistema CLT taulaz ordeztzea, merkatuaren egoera dela-eta erabilgarritasuna erraztuz.

- Kanpoko arotzeriako eta beirateriako materialetan alternatibak aztertzea eta txertatzea.

- Akaberako materialetan alternatibak aztertzea eta txertatzea: zoladurak, paramentu bertikalak, sabaiak. Kostuen eta iraunkortasunaren araberak. Merkatuaren koiunturaren ondorioz erabilgarritasuna erraztu dezaketen alternatibak.

- Isolamendu-materialen alternatibak aztertzea.

- Erdi-kanpoko espazioetako errezel-hormetan eguzki-babese-ko sistemak sinplifikatzea.

- Store bertikalen ordeztzea bahe horizontalak jartzea.

g) Aldaketak instalazioetan.

Ondorioak:

- Ikasgeletako bero-berreskuratzailen bateratzea.

- EUB-ekoizpenaren deszentralizazioa.

- PVen doikuntza.

- Eroanbide-sistemak berriz kalkulatzea ekoizpen-taldearen egoera aldatzearen ondorioz.

- Geotermia aldatzea aerotermia gehikuntzan.

- Ez da bateriarik instalatuko. Erreserba-espazioari eutsiko zaio etorkizunera begira.

- Laugarren solairua: behar diren aurreinstalazioak paratuko dira (airea, elektrizitatea, datuak, eta abar...) etorkizunean funtzionalki egokitze aldera. Argiztapen-tresneria berraztertzea, merkaturan alternatiba merkeagoak bilatze aldera.

h) Aldaketak urbanizazioan.

Ondorioak:

- Eremu berdearen gehikuntza. Zolatutako eremuaren murrizketa.

- Lur gainean aparkatze murriztuko plazak paratzea.

- Nibel eta arrapalak sinplifikatzea: "harmailak" kentzea.

- Mendebaldeko fatxadan eta iparraldeko zati batean berdegune perimetral bat nibelean paratzea, etorkizunean erabilera aldatuz gero argia sar dadin.

i) Berraztertzeak

- Arkitektura eta eraikuntzako espedientearen egokitzapena (laugarren solairua eskuragarri egon ahal izatea, armairuak birkokatzea, aireberritzeko patioak aldatzea, sotoko LREa aldatzea...).

- Ke-azterketa berraztertzea.

- EUB, geotermia, klima eta fatxaden ingurutzailen dauden doikuntzetatik eratorritako energia positiboko eraikinaren parametroak egiaztatzea.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 18an

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Juan Cruz Cigudosa García

10-22/PES-00484. Galdera, erosketa publiko berritzaileari buruzkoa.**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Arantza Izurdiaga Osinaga andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, erosketa publiko berritzaileari buruzkoa. Galdera 2022ko abenduaren 27ko 150. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Arantza Izurdiaga Osinaga andreak idatziz erantzuteko galdera egin du erosketa publiko berritzaileari buruz (10-22/PES-00484). Hona Nafarroako Gobernuo Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak horretaz ematen duen informazioa:

Berrikuntzako Zuzendaritza Nagusiko Erosketa Publiko Berritzailearen Atalak zenbait jarduketara egin ditu departamentuek Berrikuntzaren Erosketa Publikoa egin dezaten sustatze aldera, besteak beste, NAPIn Erosketa Publiko Berritzaileari buruz egindako oinarrizko prestakuntza ikastaro bat lan-

gile guztiendako, departamentu bakoitzak baitu erosketak egiteko eskumena.

Eskubide Sozialetako Departamentuko Errealitate Sozialaren Behatokiak egin nahi duen proiektu pilotua zehaztea lortu da, merkataritza-aurreko modalitatean.

Dokumentazio guztia prest utzi da Merkatuko Aurrekontsulta abiarazteko, 2023an zehar egingo den espedienteari hasiera emateko lehen izapidea baita.

Horrez gain, Erosketa Publiko Berritzaileari buruz antolatutako zenbait jardunalditan parte hartu da, esaterako, Zaragozako Unibertsitateak egindako jardunaldian. Era berean, harremanak izan dira beste autonomia-erkidego batzuekin eta zenbait aditurekin.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 18an

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Juan Cruz Cigudosa García

10-22/PES-00489. Galdera, Justizia Jauregiko espazio ezari buruzkoa.**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Arantza Izurdiaga Osinaga andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Justizia Jauregiko espazio ezari buruzkoa. Galdera 2022ko abenduaren 27ko 150. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioaren ele-dun Arantza Izurdiaga Osinaga andreak idatziz erantzuteko galderak egin ditu (10-22/PES-00489). Hona hemen Nafarroako Gobernuo Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariaren erantzuna:

Dokumentu hau erantsi dugu:

PES-00489 001 Galdera parlamentarioaren erantzuna

PES-00489 002 Merkataritzakoa

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 18an

Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilaria: Eduardo Santos Itoiz

Erantzuna PES00489 galdera parlamentarioari

2022ko abenduaren 19an Justizia Zuzendaritza Nagusi honetan EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak Iruñeko Justizia Jauregian dagoen espazio faltari buruz egindako informazio-eskaera jaso genuen.

Informazio-eskaerari erantzute aldera, Justizia Zuzendaritza Nagusiko Azpiegitura Judizialen Zerbitzuak honako informazio hau ematen du:

1– Zer jarduketa egin ditu nafarroako gobernuak nafarroan merkataritza-arloko bigarren epaitegia sortu eta abiatzearen ondorioz Justizia Auzitegian dagoen espazio falta konpontzeko?

Kontuan hartuta Iruñeko Justizia Jauregian ez zegoela beste espazio librerik, aukera bakarra izan da epaitegi berria Merkataritza-arloko epaitegiak hartzen zuen toki berean kokatzea, bertan espazio nahikoa baitzegoen. Lan-bolumena dela-eta, Merkataritza arloko 1. Epaitegian 11 lagun ari ziren lanean, epaitegi bat osatu ohi duten 8 pertsonen orde; hortaz, 5 lanpostu berrietarako tokia bilatu behar izan da, ez besterik.

Horretarako, hainbat dokumentu artxibora eraman ziren, espazioa husteko asmoz, eta beharrezkoak ez ziren armairuak kendu ziren.

Bestalde, egun dauden L formako lanerako mahai indibidualak ordeztu eta hegalik gabeko pull erako mahaiak paratu ziren espazioa optimizatze aldera, eta altzari mota berdina erosi da epaitegi berriko postuetarako.

Mahaiak pull eran paratuta, bulegoan espazio gehiago egoteaz gain, lanpostuen egoera hobetu da, mahaien azalera erabilgarria handitu baita. Horrez gain, merkataritzako epaitegitik kendu diren altzariak Iruñeko Lehen Auzialdiko 4. Epaitegian instalatu dira, bertako altzariak nahiko zaharkiturik baitzeuden.

Aurreko egoeraren plana erantsi dugu, bai eta oraingoa ere, epaitegi berria sortu ondorengo.

2 – Zer jarduketa egin ditu Nafarroako Gobernuak 2022an eraikin judizial berri bat eraikitzeari ekiteko?

- 2021eko abenduaren 15ean HJPBa aurkeztu zen Iruñeko Udalean hasierako onespina egin zedin.

- 2022ko urtarrilaren 17an Iruñeko Udalaren errekerimendu bat jaso genuen dokumentazioa osatze aldera.

- 2022ko otsailaren 15ean idatzi zen U.I.-XIII/Z-2ren Hiri Jarduketarako Plan Bereziaren generoaren araberrako eraginari buruzko txostena, eta udal-errekerimenduari emandako erantzunean sartu zen.

- 2022ko apirilaren 13an, eskatutako agiriak aurkeztu genituen Iruñeko Udalean.

- 2022ko ekainaren 6an, Iruñeko Udalaren beste errekerimendu bat jaso genuen, zeinetan eskatzen baitzuen parte-hartze prozesu berri bat egin zedin, aurreko prozesuan antolamendu-alternatiba desberdinak aurkeztu ez zirelakoan.

- 2022ko ekainaren 30ean herritarren parte-hartzeko bigarren lantegia egin zen; PARTE HARTU, NAFARROA! webgunean prozesurako berariazko erlantz bat gaitu zen, eta ekarpenak modu irekian egiteko aukera zegoen, bai eta bileran aurkeztutako alternatibak aztertze galdetegi bat betetzeko ere, uztail osoan zehar.

- 2022ko abuztuaren 11n Herritarren Partaidetzako Planaren bigarren txostena jaso genuen, eta dokumentu hori Udalaren errekerimenduari erantsi genion.

- 2022ko urriaren 13an bigarren errekerimenduari emandako erantzuna aurkeztu genuen Iruñeko Udalean.

- 2022ko abenduaren 9an Udalaren jakinarazpen bat jaso genuen, zeinetan esaten zen HJPBaren espediente Hirigintza Gerentziaren Kontseiluak azaroaren 30ean egindako bilkurara eraman zutela hasiera batez onesteko; Gerentziaren zerbitzu tekniko eta juridikoen txostenak espediente onestearen aldekoak ziren. Dena den, hauxe onetsi zen: "Sustatzaileari eskatzea antolamenduari aldatzea bat aurkez dezala, L itxurako eraikuntza aurreikusitako plaza integratuko duena, espazio publikoa duindu eta 1 edo 2 bolumenetan egin daitekeena".

- Jakinarazpenaren zehaztasun eza ikusita, abenduaren 12an Justizia Zuzendaritza Nagusiak horri buruzko azalpenak eskatu zizkion Udalari.

- Azalpenak abenduaren 16an jaso genituen email bidez, eta, ondoren, Justizia Zuzendaritza Nagusiak espedientearen txosten tekniko eta juridikoen kopia eskatu zuen, bai eta Hirigintza Gerentziaren Kontseiluaren aktaren kopia ere.

- Abenduaren 19an Justizia Zuzendaritza Nagusian jaso genuen Udalarari eskatutako dokumentazioa, baina ez zuen argitzen Hirigintza Gerentziaren Kontseiluak azaroaren 30ean egindako bilkuran adostu zen antolamendua aldatzeko eskaera.



- Gaur egun, Udalak egindako azken eskaeraren erantzuna prestatzen ari gara.

3 – Noiz du aurreikusita lizitatzea eraikin judicial berria eraikitzeko prozesua?

Behin HJPBa onetsita eta aurrekontu-partida edukita proiektua idazteko enkargua lizitzatzeko eta gerora obra gauzatzeko. Kontuan hartuta urte anitzeko kontratu bat dela, horretarako Nafarroako Gobernuaren Erabaki bat beharrezkoa da.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 13an

Azpiegitura Judizialen Zerbitzuko zuzendaria:
Beatriz Aguirre



10-22/PES-00598. Galdera, Hiritartasunari, Bizikidetzari eta Aniztasunari buruzko Unesco Katedraren esparruan migratzaileen gizarteratzea sustatze aldera Departamentuaren eta NUPen arteko lankidetzaz hitzarmenaren aurrekontu-partida 60.000 euroan handitzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Hiritartasunari, Bizikidetzari eta Aniztasunari buruzko Unesco Katedraren esparruan migratzaileen gizarteratzea sustatze aldera Departamentuaren eta NUPen arteko lankidetzaz hitzarmenaren aurrekontu-partida 60.000 euroan handitzeari buruzkoa. Galdera 2023ko urtarrilaren 13ko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko otsailaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak idatziz erantzuteko galdera bat egin du (10-22/PES-00598). Hona hemen Nafarroako Gobernuko Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariaren erantzuna.

1. Aurrekontua 60.000 euroan handitu da NUPekin hitzarmen berri bat sartu delako, Prome-teus Programa berria exekutatzeko aldera. Programaren helburua da ekarpena egitea sustatze aldera migratzaileek unibertsitate-ikasketak eskura izan ditzaten eta Nafarroan migratzaile zaurgarriek ikasketa horiek modu arrakastatsuan amaitzen laguntzea. Esku-hartze sozialeko ekintzak abian jarriko dira, xede dutenak ikasle ahulenek unibertsitate-ikasketak eskuragarri izatea sustatzea, eskola-uztearen faktoreak murriztea eta unibertsitatearen eta inguruko beste eragile sozio-ekonomikoen batzuen arteko harremanak indartzea.

2. Programa berri bat exekutatzeko hitzarmen berri bat da.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2023ko otsailaren 3an

Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilaria: Eduardo Santos Itoiz

10-22/PES-00599. Galdera, Kalamua ikertzeko Nafarroako Elkartearen proiektuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Luisa De Simón Caballero andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Kalamua ikertzeko Nafarroako Elkartearen proiektuari buruzkoa. Galdera 2023ko urtarrilaren 13ko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentarioari atxikitako Marisa de Simón andreak idatziz erantzuteko galdera bat aurkeztu du, Kalamua ikertzeko Nafarroako Elkartearen (ANIC) proiektuaren aurkezpenari buruzkoa. Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna, Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza Nagusiak emana:

- Zer entitate zientifiko izan ditu aholkulari Nafarroako Gobernuak proiektu hori abian jartzeko?

ANICek AEMPSari (Espainiako Medikamentuaren eta Osasun Produktuen Elkartea) aurkeztuko dion proiektuan Nafarroako Gobernuari aholkularitza ematen ari diren erakunde zientifikoak honako hauek dira: NUP, CSIC-IDAB, Navarrabiomed eta INTIA eta NASERTIC sozietate publikoak.

- Zer helburu ditu sortutako erakundeak?

Estatutuetan jasotzen duen bezala, Elkartearen xedea da, bazkideen arteko ekitate-irizpidearen arabera eta Nafarroarako lurralde-ikuspegia kontuan hartuta, AEMPSen, Espainiako Medika-

mentuaren eta Osasun Produktuen Agentzia eta, zehazki, honako hauen lizentziak edo baimenak lortzea eta kudeatzea: lehendabizi, kalamu-landareak, ikertzeko helbururako, landatzeko baimena; helburu mediko eta zientifikoetarako kalamu-landareak landatzeko baimena; eta, ondoren, urtero, kalamu-landareak landatzeko lursailen eta guztizko azaleraren urteko baimena.

- Zein da Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak Josenean kalamuaren ikerketa-proiektua abiatzeko bideratutako 200.000 euroen xehakapena?

200.000 € da ANICek duen aurrekontua 2023an ikerketa-proiekturako behar diren gastu guztiak finantzatzeko, hala nola intsumoak, ikertzaileen kontratazioa, laborantza-lursailaren egoitzapena eta laborategiko analisiak.

- ANICek aurreikusita al du kalamuaren deribatu senda-erabilerarekin lotutako proiekturen bat egitea?

Gaur egun, ANIC ikerketa-proiektu bat idazten ari da, barietateak testatzeko. Proiektu horretan legezko berme guztiakin lan egitea ahalbidetuko duen ikerketa-lizentzia lortzeko lehen proiektua da. Etorkizunean proiektu berriak aurkez litezke, kontuan hartuta, gainera, ANIC lidergo publikoko elkarte bat dela, operadore berriak sartzeko irekia, eta kontuan hartuta, halaber, kalamuaren erabilera medizinalaren estatu-mailako arau-esparru berri baten zain gaudela.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko otsailaren 2an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Itziar Gómez López

10-22/PES-00601. Galdera, Sodena, CEN eta Albyn Medicaiek soberan gelditutako maskarei irtenbide bat emate aldera izandako bilerei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Sodena, CEN eta Albyn Medicaiek soberan gelditutako maskarei irtenbide bat emate aldera izandako bilerei buruzkoa. Galdera 2023ko urtarrilaren 13ko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak 10-22/PES-00601 idatziz erantzuteko galdera aurkeztu du, SODENA, CEN eta Albyn Medicaiek maskarak erosteko egindako hitzarmenari dago-

kionez soberan gelditutako maskarei irtenbide bat emate aldera izandako bileren datei buruzkoa. Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilari Mikel Irujo Amezaga jaunak jakinarazten du aipatutako hiru elkarteek bilera bateratuak egin dituztela honako data hauetan:

- 2022ko azaroaren 7a, astelehena
- 2022ko abenduaren 12a, astelehena
- 2022ko abenduaren 27a, asteartea
- 2023ko otsailaren 2a, osteguna

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua xedatua betez.

Iruñean, 2023ko otsailaren 3an

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga

10-22/PES-00602. Galdera, Pilar Gogorcena eguneko zentroari buruzkoa.**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Pilar Gogorcena eguneko zentroari buruzkoa. Galdera 2023ko urtarrilaren 13ko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko otsailaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Jorge Esparza Garrido jaunak galdera bat egin du Pilar Gogorcena Eguneko Zentroari buruz (10-22/PES-00602). Hona Nafarroako Gobernu Eskubide Sozietako kontseilariak informatzeko duena:

1.- Zenbat erabiltzaile ditu Pilar Gogorcena eguneko zentroak?

Pilar Gogorcena zentroak 45 erabiltzaile ditu gaur egun.

2.- Zenbat senideri eskaini zitzaizkien eguneko zentroan egindako jarduketak baloratzeko inkestan parte hartzeko aukera?

Zentroan egindako jarduketak baloratzeko inkestan parte hartzeko aukera eman zitzaizkien familia guztiei, eta 14k erantzun zuten. Gogobetetasun-maila % 92,9 izan zen; % 100 litzateke maila gorena.

3.- Zer datatan eta nork egin zuen inkesta hori?

Inkesta 2021eko irailean egin zen, zentroa kudeatzen duen enpresaren zerbitzu zentralen eskutik.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko otsailaren 6an

Eskubide Sozietako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

10-22/PES-00603. Galdera, 2019an, 2020an eta 2021ean enplegu-zentro berezietan lanean aritutako pertsona desgaituei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderen erantzuna, Foru Diputazioak emana, 2019an, 2020an eta 2021ean enplegu-zentro berezietan lanean aritutako pertsona desgaituei buruzkoa. Galdera 2022ko otsailaren 4ko 14. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko otsailaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Jorge Esparza Garrido jaunak galdera egin du 2019tik 2021era enplegu-zentro berezietan lanean aritutako pertsona desgaituei buruz (10-22/PES-00603). Hona Nafarroako

Gobernuko Eskubide Sozialetako kontseilariak informatzeko duena:

Jakitera ematen da Enplegu-zentro bereziek kontratatutako pertsona desgaituei buruzko datuak modu desberdinetan neurtzen ahal direla: urte osoan lanean aritutako pertsona desberdinen batez bestekoa; data zehatz batean kontratatuta dauden pertsona-kopurua eta urte horretan zentro horiekin kontratu bat sinatu duten pertsona-kopuru osoa. Kasu honetan, dagokion datua da urte horretan zentro horiekin kontratu bat sinatu duten pertsona-kopuru osoa. Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua-ren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko otsailaren 6an.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

	KONTRATATUTAKO PERTSONAK			
	URTEA	GUZTIZKOA	EMAKUMEAK	GIZONAK
ASOCIACION DE DISMINUIDOS FISICOS Y PSIQUICOS DE CORELLA	2019	84	24	60
ASOCIACIÓN DE PERSONAS CON DISCAPACIDAD DE LA RIBERA DE NAVARRA	2019	189	74	115
NAVARRA SIN FRONTERAS-CEE ALBERNIA ELKARTEA	2019	26	7	19
TELE TAXI SAN FERMIN ELKARTEA	2019	17	12	5
DYA SERVICIOS DISCAPACITADOS, S.L.	2019	8	5	3
ELKARKIDE	2019	130	28	102
LASTAI, S.L. GASOLINA-ZERBITZUGUNEA	2019	15	2	13
FEVIMAX-LOGISTICA SL	2019	8	2	6
ASPACE FUNDAZIOA	2019	288	93	195
BIDEAN LABORAL FUNDAZIOA	2019	48	22	26
GRUPO SIFU NAVARRA, S.L.	2019	79	53	26
GUREAK NAVARRA, S.L.U.	2019	217	61	156
ILUNION NAVARRA, S.L.U	2019	186	58	128
ILUNION RETAIL Y COMERCIALIZACION, S.A.	2019	9	8	1
TASUBINSA	2019	757	280	477
TELIZSA, S.L.	2019	72	53	19
GUZTIRA	2019	1809	660	1149

	KONTRATATUTAKO PERTSONAK			
	URTEA	GUZTIZKOA	EMAKUMEAK	GIZONAK
ASOCIACION DE DISMINUIDOS FISICOS Y PSIQUICOS DE CORELLA	2020	85	21	64
ASOCIACIÓN DE PERSONAS CON DISCAPACIDAD DE LA RIBERA DE NAVARRA	2020	184	71	113
NAVARRA SIN FRONTERAS-CEE ALBERNIA ELKARTEA	2020	27	7	20
TELE TAXI SAN FERMIN ELKARTEA	2020	15	11	4
DYA SERVICIOS DISCAPACITADOS, S.L.	2020	8	5	3
ELKARKIDE	2020	122	26	96
LASTAI,S.L. GASOLINA-ZERBITZUGUNEA	2020	9	1	8
FEVIMAX-LOGISTICA SL	2020	5	2	3
ASPACE FUNDAZIOA	2020	263	85	178
BIDEAN LABORAL FUNDAZIOA	2020	49	22	27
GRUPO SIFU NAVARRA, S.L.	2020	67	36	31
GUREAK NAVARRA, S.L.U.	2020	251	80	171
ILUNION NAVARRA,S.L.U	2020	151	44	107
ILUNION RETAIL Y COMERCIALIZACION, S.A.	2020	5	5	0
TASUBINSA	2020	771	288	483
TELIZSA, S.L.	2020	81	60	21
GUZTIRA	2020	2093	764	1329

	KONTRATATUTAKO PERTSONAK			
	URTEA	GUZTIZKOA	EMAKUMEAK	GIZONAK
ASOCIACION DE DISMINUIDOS FISICOS Y PSIQUICOS DE CORELLA	2021	98	23	75
ASOCIACIÓN DE PERSONAS CON DISCAPACIDAD DE LA RIBERA DE NAVARRA	2021	193	70	123
NAVARRA SIN FRONTERAS-CEE ALBERNIA ELKARTEA	2021	35	12	23
TELE TAXI SAN FERMIN ELKARTEA	2021	13	9	4
DYA SERVICIOS DISCAPACITADOS, S.L.	2021	7	3	4
ELKARKIDE	2021	120	26	94
LASTAI,S.L. GASOLINA-ZERBITZUGUNEA	2021	9	2	7
FEVIMAX-LOGISTICA SL	2021	4	3	1
ASPACE FUNDAZIOA	2021	283	85	198
BIDEAN LABORAL FUNDAZIOA	2021	48	21	27
GRUPO SIFU NAVARRA, S.L.	2021	78	39	39
GUREAK NAVARRA, S.L.U.	2021	284	91	193
ILUNION NAVARRA, S.L.U.	2021	150	48	102
ILUNION RETAIL Y COMERCIALIZACION, S.A.	2021	5	5	0
TASUBINSA	2021	775	279	496
TELIZSA, S.L.	2021	74	51	23
GUZTIRA	2021	2176	767	1409

10-22/PES-00604. Galdera, El Vergel zahar-etxearen inguruan bizi diren, 65 urtetik gorakoak diren eta desgaitasun intelektuala duten pertsonen arreta-beharretara egokitzearen ebaluazioari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, El Vergel zahar-etxearen inguruan bizi diren, 65 urtetik gorakoak diren eta desgaitasun intelektuala duten pertsonen arreta-beharretara egokitzearen ebaluazioari buruzkoa. Galdera 2023ko urtarrilaren 13ko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko otsailaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Jorge Esparza Garrido jaunak galdera egin du El Vergel zahar egoitzaren ingurunea zentroan egon eta adimen-desgaitasuna duten 65 urtetik gorako pertsonen arreta-beharretara egokitzearen ebaluazioari buruz (10-22/PES-00604). Honako hau da Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako kontseilariak informatu beharrekoa:

2020ko maiatzean Valle del Roncal zentroko erabiltzaileak El Vergel zahar etxera lekualdatu zituztenetik, egoiliar horien logelek osatutako espazioan zenbait aldaketa egin dira. Lehenik eta behin, 14 pertsona horiendako bizikidetzako unitate independente bat sortu zen, zentroaren gainerrako guneeetatik bereizita; korridorearen bi aldeetan

ateak paratu ziren, haien komunikazioa eta independentzia bermatze aldera. Bigarrenik, egongela-jantokiaren eremua areto nagusi gisa gaitu zen (gune bereziekin); era berean, unitateko muturretan bi espazio osagarri gune atsegin eta bereizi gisa gaitu ziren, jarduerak eta elkarbitza-uneak dibertsifikatzeko. Halaber, office txiki bat gaitu zen, eta bertan eguneroko bizitzaren jarduera instrumentalak entrenatzen dira, hala nola sukaldaritza-jarduerak, erabiltzaileek oso ongi baloratzen dituztenak.

Azkenik, eta gaur egun "Valle del Roncal" unitatean bizi diren pertsonen nahien eta lehentasunen arabera, arian-arian pertsona horien bizi-kalitatea hobetzeko elementuak sartu dira geletan eta aretoetan, hala nola bizikleta estatikoak eta estimulazio sentsorialeko elementuak.

Oraindik ez dira ebaluatu egokitzapen horiek, eta horretarako erabiltzaileen, familien eta profesionalen gogobetetasuna neurtuko da.

Unitatearen funtzionamendua ebaluatzeko lanbilerak egin dira 2021ean. Horri esker, beharrak, indarguneak eta hobetu beharreko arloak antze-man eta ebaluatu dira.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko otsailaren 6an

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

10-22/PES-00605. Galdera, desgaitasuna duten pertsonak artatzeko jarraibideen inguruan Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren langileek 2021ean egindako prestakuntza-jardunaldiei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, desgaitasuna duten pertsonak artatzeko jarraibideen inguruan Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren langileek 2021ean egindako prestakuntza-jardunaldiei buruzkoa. Galdera 2023ko urterilaren 13ko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko otsailaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Jorge Esparza Garrido jaunak galdera egin du desgaitasuna duten pertsonak artatzeko Nafarroako Enplegu Zerbitzuko langileei zuzendutako prestakuntza-jardunaldiei buruz (10-22/PES-00605). Hona Nafarroako Gobernu Eskubide Sozialetako kontseilariak informatzeko duena:

2021ean 4 prestakuntza-saio egin ziren Nafarroako Enplegu Zerbitzuko langileentzat, desgaitasuna duten pertsonen arreta emateari buruzkoak.

Saioak martxoaren 11n, 18an eta 25ean eta apirilaren 28an egin ziren.

48 lagunek parte hartu zuten saio horietan. Parte-hartzea hautazkoa izan zen, eta jendeari arreta ematen dioten langile guztiek izan zuten joateko aukera. Honako hau da bertaratutako pertsonen xehakapena, unitate organikoen arabera:

- 1 Altsasuko Enplegu Agentzian
- 1 Agoizko Enplegu Agentzian
- 4 Lodosako Enplegu Agentzian
- 1 Tafallako Enplegu Agentzian
- 11 Tuterako Enplegu Agentzian

• 30 Iruñean (Iturrondo Enplegu Agentzian, Bigarren Zabalguneko Enplegu Agentzian eta Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zerbitzu zentraletan).

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko otsailaren 6an

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

10-22/PES-00606. Galdera, 2021eko Plan Operatiboan jasotakoari jarraikiz, desgaitasuna duten pertsonen enplegua sustatzeko kontratazio publiko soziala eta arduratsua bultzatzera bideratutako aldaketaren 2. neurriari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderen erantzuna, Foru Diputazioak emana, 2021eko Plan Operatiboan jasotakoari jarraikiz, desgaitasuna duten pertsonen enplegua sustatzeko kontratazio publiko soziala eta arduratsua bultzatzera bideratutako aldaketaren 2. neurriari buruzkoa. Galdera 2023ko urtarrilaren 13ko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko otsailaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Jorge Esparza Garrido jaunak

galdera egin du 2021etik 2023ra bitarte departamentuek egindako erreserbadun kontratuen plan-gintzei buruz (10-22/ PES 00606). Hona Nafarroako Gobernu Eskubide Sozialetako kontseilariak informatzeko duena:

Informazio hori jada eman zaio parlamentari horri, 10-22/PEI-00840 zenbakiko Parlamentuko informazio-eskaerari emandako erantzunean.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko otsailaren 6an.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

10-22/PES-00607. Galdera, desgaitasuna duten pertsonendako prestakuntza-programa espezifikoaren diseinua orientatzeko lan-merkatuan dagoen eskariari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, desgaitasuna duten pertsonendako prestakuntza-programa espezifikoaren diseinua orientatzeko lan-merkatuan dagoen eskariari buruzkoa. Galdera 2023ko urtarrilaren 13ko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko otsailaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Jorge Esparza Garrido jaunak galdera egin du prestakuntza-programetan parte hartzen duten pertsona desgaituei eta beharrak detektatzeari buruz (10-22/PES-00607). Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako kontseilariak informatzeko duena:

Desgaitasuna duten pertsonendako prestakuntza-programak diseinatzeko beharrak detektatzeari buruzko galderari dagokionez, jakitera ematen zaizu, urtero, desgaitasuna duten pertsonen zuzendutako berariazko prestakuntza-planak finantzatzen direla lanean ari direnei zuzendutako prestakuntza-programak garatzeko dirulaguntza-deialdiaren bidez. Deialdiak berak lan-merkatuak eskatzen dituen prestakuntza-espezialitateak barne hartzen ditu. Erantsita doa espezialitateen zerrenda (1200 baino gehiago), zeina jasota baitago Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen martxoaren 8ko 996E/2022 Ebazpenaren bidez onetsitako azken dirulaguntza-deialdian. Deialdi horretan parte hartzen duten prestakuntza-entitateek aipatu espezialitateen artean hautatzen dute, eta berariazko prestakuntza-plan bat eskaintzen diete desgaitasuna duten pertsona horiei. Behin eskaera aurkeztuta, dirulaguntza ematen zaie oinarrietako balorazio-irizpideak aplikatu ondoren puntuaziorik altuena lortzen duen prestakuntza-plana duten entitateei.

Programatutako 15 ikastaroetatik 8 baino eman ez izanaren arrazoiari buruz egindako galderaz bezainbatean, informazio gehiago ematen

ez denez, ez dakigu zein urteri eta deialdiari buruz ari zaren.

2021ean lanean ari ziren pertsonen zuzendutako prestakuntza-programendako dirulaguntza-deialdian —Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen abenduaren 29ko 4538E/2020 Ebazpenaren bidez onetsia—, exekuzio-epea 2021eko urtarrilaren 23an hasten zen, eta 2022ko ekainaren 30ean bukatzen.

2022an lanean ari ziren pertsonen zuzendutako prestakuntza-programen dirulaguntza-deialdi horretan —Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen martxoaren 8ko 996E/2022 Ebazpenaren bidez onetsia— exekuzio-epea oraindik ere indarrean dago, 2023ko ekainaren 30era artekoa baita.

Hortik ondorioztatzen da ezen galdetzen den betearazpena 2021eko dirulaguntza-deialdiari dagokiona dela. Deialdi horretan, honako hiru erakunde hauek izan ziren desgaitasuna duten pertsonen zuzendutako programaren onuradunak:

- Nafarroako Industriaren Elkartea
- FC Formación Continua
- Incluye Sozietate Mikrokoopeartiboa

Hiru entitate horiek 13 prestakuntza-ekintza eman zituzten, eta 193 lagunek parte hartu zuten. Hauek dira prestakuntza-ekintzak:

- Kudeaketa- eta arreta-oinarriak
- Komunikazioa, asertibitatea eta entzute aktiboa enpresan
- Arriskuen prebentzioari buruzko oinarritzko ikastaroa
- Entzute aktiboa, enpatia eta asertibitatea (2 ekintza)
- Talde-lana
- Etxeko gaitasunak desgaitasuna duten pertsonendako
- Biltegiaren oinarritzko kudeaketa
- Hedapena eta sentsibilizazioa genero-indarkeriaren arloan
- Gaitasun digitalak enpresan (4 ekintza)

2021ean, prestakuntzak oraindik ere pandemiaren ondoriozko zenbait murrizketa pairatu zituen: ikasgelan gehienez egon zitekeen pertsona-kopurua, maskarak erabiltzea, eta abar.

Entitate onuradunek aipatu zigutenaren arabera, kolektibo horren ezaugarriak zirela-eta (ahulezia handiagoa, erantzun desberdina pandemia-egoerari) beste pertsona batzuekin alderatuta, zailagoa izan zen haien parte-hartzea bermatzea. Ikasgela birtualaren bidezko prestakuntza —garai hartan ahalbidetu zen prestakuntza errazte aldera— ere ez zen izan irtenbide nahikoa izan haien parte-hartzea sustatzeko.

Zailtasun horiek egon arren, aipatu behar da aurreikusitako 16 prestakuntza-ekintzetatik 13 eman direla; hau da, proposatutako prestakuntza-ekintzen % 81,25 exekutatu dira.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko otsailaren 6an

Eskubide Sozietako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago kudeaketa parlamentarioko Ágora sisteman).

10-22/PES-00608. Galdera, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren lan-orientazioa eta prestakuntza-programak desgaitasuna duten pertsonen beharretara eta gaitasunetara egokitze esparruan espezializatutako enpresen prospekzio-planei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren lan-orientazioa eta prestakuntza-programak desgaitasuna duten pertsonen beharretara eta gaitasunetara egokitze esparruan espezializatutako enpresen prospekzio-planei buruzkoa. Galdera 2023ko urtarrilaren 13ko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko otsailaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Jorge Esparza Garrido jaunak galdera egin du Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuko orientazio eta prospekzio zerbitzuari buruz (10-22/PES-00608). Hona Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozietako kontseilariak informatzeko duena:

2021eko urtarrilean prospekzio-zerbitzu bat abian jarri zen Nafarroan lanbide orientazioko zerbitzua kudeatzeko kontratuaren bidez. Kontratu horretan, 1. Lotearen entitate adjudikaziodunek, COCEMFE Nafarroak eta COCEMFE Espainiak, orientazio- eta prospekzio-zerbitzuak ematen dizkiete desgaitasuna duten pertsonen. Desgaitasuna duten pertsonak kontratatze aldera, 127 enpresa prospektatu dituzte.

Lanbide orientazioko zerbitzua eskatu duten pertsona desgaitu guztiei eman zaie arreta, bai aipatu enpresa adjudikaziodunen bidez, bai Enplegu Agentzietako orientazioko langileen bidez. Horrez gain, nabarmendu behar da zerbitzua ez dela bakarrik eskariaren araberakoa, aipatu entitate adjudikaziodunak modu proaktiboan harremanetan jartzen baitira izena eman duten pertsona desgaituekin zerbitzu hori eskaintzeko.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko otsailaren 6an.

Eskubide Sozietako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

10-22/PES-00609. Galdera, 2021eko Desgaitasuneko Plan Operatiboaren 4. aldaketaren 1. neurria betetze aldera Osasun Mentaleko Kudeatzailetzaren eta Koordinazio Soziosanitarioko Atalaren ordezkariak egindako bilerekin buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betetz, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, 2021eko Desgaitasuneko Plan Operatiboaren 4. aldaketaren 1. neurria betetze aldera Osasun Mentaleko Kudeatzailetzaren eta Koordinazio Soziosanitarioko Atalaren ordezkariak egindako bilerekin buruzkoa. Galdera 2023ko urtarrilaren 13ko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko otsailaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Jorge Esparza Garrido jaunak galdera egin du 2021eko Desgaitasuneko Plan Operatiboaren 4. aldaketaren 1. neurria betetze aldera Osasun Mentaleko Kudeatzailetzaren eta Koordinazio Soziosanitarioko Atalaren ordezkariak egindako bilerekin buruz (10-22/PES-00609). Hona Nafarroako Gobernuaren Eskubide Sozialetako kontseilariak informatzeko duena:

1.- Noiz bildu dira Osasun Mentaleko Kudeatzailetzaren eta Koordinazio Soziosanitarioko Atalaren ordezkariak, 2021eko Desgaitasuneko Plan Operatiboaren 4. aldaketaren 1. neurria betearazte aldera?

2021/03/25. GMEL kasuak aztertze bilerak.

2021/05/28. Eskubide Sozialetako Departamentuak kudeatzen dituen Buru-nahaste Larrien programaren arreta-baliabideen azalpena osasun mentaleko sareko gizarte-langileei.

2021/09/10. Buru-nahaste Larrietarako baliabide soziosanitarioen azterketa.

2021/11/11. Osasun Mentaleko baliabideen azterketa.

2.- Nork eta zer erakunderen ordezkari gisa hartu dute parte bilera horietan?

- Iñaki Arrizabalaga Echeagoena (Osasunbidea-NOZeko Osasun Mentaleko kudeatzailea)

- Inés Francés Román (Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziaren zuzendari kudeatzailea)

- Gloria Elgorriaga Aranaz (Ekintza Soziosanitarioko koordinatzailea. Osasun Mentaleko Kudeatzailetza)

- Oiga Sala López (Balorazioen eta Zerbitzuen zuzendariordea) PAGNA

- Ainhoa Trébol Urra (Desgaitasuna duten Pertsonentzako Zerbitzuen Ataleko burua) PAGNA

- Cristina Rubio Ortega (Desgaitasuna duten Pertsonentzako Zentroen Bulegoko burua) PAGNA

- Leire Elizalde Carvallo (Desgaitasuna duten Pertsonentzako Zerbitzuen Ataleko teknikaria) PAGNA

- Eva Lizasoain Urra (Gizarte-langilea. Lizarrako OMZ)

- Sonia Mayor Lapedriza (Gizarte-langilea. Alde Zaharreko OMZ)

- Maite Armendariz Monreal (Gizarte-langilea. Eguneko Ospitale Psikogeriatrikoa)

- Ana Garralda Martínez (Gizarte-langilea. Osasun Mentaleko Egonaldi Luzeko Unitatea)

3.- Eskaini al zaio bileretan parte hartzea Osasun Mentalaren Sareari? Nola?

Bileretan eta topaketetan parte hartu duten Osasun Departamentuko pertsona guztiak osasun mentalaren sareko profesionalak dira.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetz.

Iruñean, 2023ko otsailaren 6an.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

10-22/PES-00610. Galdera, desgaitasuna duten pertsonak merkatu arruntean laneratzea sustatzera bideratutako dirulaguntzen deialdietan 2019an exekututako aurrekontuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderen erantzuna, Foru Diputazioak emana, desgaitasuna duten pertsonak merkatu arruntean laneratzea sustatzera bideratutako dirulaguntzen deialdietan 2019an exekututako aurrekontuari buruzkoa. Galdera 2023ko urtarrilaren 13ko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko otsailaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Jorge Esparza Garrido jaunak galdera egin du Desgaitasuna duten pertsonak lan-merkatu arruntean laneratzea sustatzera bide-

ratutako dirulaguntza-deialdian 2019an exekututako aurrekontuari buruz (10-22/PES-0061 O). Hona Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako kontseilariak informatzeko duena:

2019an, desgaitasuna duten pertsonak lan-merkatu arruntean laneratzea sustatzera bideratutako dirulaguntza-deialdiak jarraitu egiten zuen Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen maiatzaren 16ko 795/2013 Ebazpena. 205.206 €-ko aurrekontua exekutatu zen, eta diru horrekin desgaitasuna duten 53 pertsona kontratatu ziren.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko otsailaren 6an.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

10-22/PES-00611. Galdera, 2021eko Desgaitasuneko Plan Operatiboaren jarraipen-txosteneko 3. taulari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, 2021eko Desgaitasuneko Plan Operatiboaren jarraipen-txosteneko 3. taulari buruzkoa. Galdera 2023ko urtarrilaren 13ko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko otsailaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Jorge Esparza Garrido jaunak

galdera egin du 2021eko Desgaitasuneko Plan Operatiboaren jarraipen-txosteneko 3. Taulari buruz (10-22/PES-00611). Hona Nafarroako Gobernu Eskubide Sozialetako kontseilariak informatzeko duena:

Laguntza-produktuak erosteko deialdiaren datuak aztertu dira, eta honako hauek dira:

- 195 emakida egin zitzaizkien 112 pertsonari. Horrek esan nahi du pertsonaren batek kontzeptu batzuetarako dirulaguntza eskatu zuela.
- Pertsona horietatik, 73 emakumeak ziren, eta 39 gizonak.

	ESKAERA KOPURUA			ESKATZAILEEN KOPURUA		
	GUZTIRA	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA	EMAKUMEAK	GIZONAK
ESKAERA KOPURUA	1089	686	403	635	408	227
EMAKIDAK	195	128	67	112	73	39

870 ukapen egin zaizkie 505 pertsonari. 24 espediente artxibatu ziren, 18 pertsonak ez zutelako aurkeztu eskatutako dokumentazioa.

	ESKAERA KOPURUA			ESKATZAILEEN KOPURUA		
	GUZTIRA	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA	EMAKUMEAK	GIZONAK
UKAPENAK	870	544	326	505	323	182
ARTXIBOAK	24	14	10	18	12	6

Eskaera bakoitzeko batezbesteko zenbatekoa taula honetan jasota dator:

PARTIDAREN ZENBATEKOA	EMAKIDA KOPURUA	EMAKIDAREN BATEZBESTEKO ZENBATEKOA
120.000 €	195	615,38 € eskaera bakoitzeko

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko otsailaren 6an
Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

10-22/PES-00612. Galdera, laguntza-beharrizan handietarako Tuterako etxebizitza abian jartzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, laguntza-beharrizan handietarako Tuterako etxebizitza abian jartzeari buruzkoa. Galdera 2023ko urtarrilaren 13ko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko otsailaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Jorge Esparza Garrido jaunak galdera egin du Laguntza-beharrizan handietarako Tuterako etxebizitza abian jartzeari buruz (10-22/PES-00612). Hona Nafarroako Gobernu Eskubide Sozialetako kontseilariak informatzeko duena:

1.- Zer datatan abiarazi da laguntza-beharrizan handietarako Tuterako etxebizitza, zeinetan 5 pertsona artatzen diren?

Tuteran dagoen La Mejana etxebizitza, desgaitasuna eta laguntza-beharrizan handiak dituzten pertsonen zuzendua, 2021eko azaroaren 29an abian jarri zen.

2.- Nola banatu da plaza horiek abiarazteko exekutututako 15.179 euroko aurrekontua?

Hauexek izan ziren 2021eko azaroko eta abenduko kostuak:

867,40 € azaroan, eta 13.444,35 € abenduan; guztira, 14.311,75 €. Gutxi gorabehera, % 77 langileria gastuak izan ziren, eta % 23 gainerako gastuetarako

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko otsailaren 6an

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

10-22/PES-00613. Galdera, 2021eko Desgaitasuneko Plan Operatiboaren 3. aldaketaren 1. neurriaren parte diren desgaitasuna duten pertsonen arreta emateko baliabideen lagungarri diren 15 etxebizitza-plazen kokapenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, 2021eko Desgaitasuneko Plan Operatiboaren 3. aldaketaren 1. neurriaren parte diren desgaitasuna duten pertsonen arreta emateko baliabideen lagungarri diren 15 etxebizitza-plazen kokapenari buruzkoa. Galdera 2023ko urtarrilaren 13ko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko otsailaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Jorge Esparza Garrido jaunak galdera egin du 2021eko Desgaitasuneko Plan Operatiboaren 3. aldaketaren 1. neurriaren parte diren desgaitasuna duten pertsonen arreta emateko baliabideen lagungarri diren 15 etxebizitza-plazen kokapenari buruz (10-22/PES-00613). Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako kontseilariak informatzeko duena:

1.- Non daude kokatuta 2021eko Desgaitasuneko Plan Operatiboaren 3. aldaketaren 1. neurriaren parte diren desgaitasuna duten pertsonen arreta emateko baliabideen lagungarri diren 15 etxebizitza-plazak, zeinak Departamentuak ziurta-tu baitu bete dituela?

Etxebizitza laguntzadunen plazak Iruñean eta Iruñerrian banatutako bost etxebizitzatan kokatuta daude: Bi Iruñean (A tu lado eta Síndrome de Down entitateek kudeatutako etxebizitzak), bat Barañainen (COCEMFE entitateak kudeatutako etxebizitza), bat Sarrigurenen (ANFAS entitateak kudeatutako etxebizitza) eta bat Mutiloan (ACODIFNA, ADACEN eta ASPACEk osatutako UTEak kudeatutako etxebizitza)

2.- Zer datatan abiarazi da plaza horietako bakoitza?

Plaza horiek guztiak 2021eko irailaren 1ean abian jarri ziren.

3.- Nola banatu da plaza horiek abiarazteko exekututako 53.009 euroko aurrekontua?

Honela banatu da 2021ean exekututako aurrekontua:

Etxebizitza	2021
1. Iruñeko etxebizitza laguntzaduna (A TU LADO)	13.777,11
2. Barañaingo etxebizitza laguntzaduna (COCEMFE)	9.057,30
3. Mutiloako etxebizitza laguntzaduna (UTE)	8.870,53
4. Sarrigurengo etxebizitza laguntzaduna (ANFAS)	12.246,32
5. Taxoare kaleko etxebizitza laguntzaduna (ASDN)	9.058,32
Guztira	53.009,58

KONTZEPTUAK	ETXEBIZITZA				
	1	2	3	4	5
Langileria-kostua	% 0,62	% 0,62	% 0,64	% 0,55	% 0,56
Gainerako gastuak, guztira	% 0,38	% 0,38	% 0,36	% 0,45	% 0,44

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko otsailaren 6an.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

10-22/PES-00614. Galdera, enplegu-zentro bereziei, laneratze-enpresei eta abarri kontratuak erreserbatzeko betebeharra bideratzeko eta ezagutarazteko webgune espezifiko berriari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderen erantzuna, Foru Diputazioak emana, enplegu-zentro bereziei, laneratze-enpresei eta abarri kontratuak erreserbatzeko betebeharra bideratzeko eta ezagutarazteko webgune espezifiko berriari buruzkoa. Galdera 2023ko urtarrilaren 13ko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko otsailaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Jorge Esparza Garrido jaunak galdera egin du kontratu-erreserbari buruzko webgunearen abiatzeari buruz (10-22/PES-00614). Hona Nafarroako Gobernu Eskubide Sozialetako kontseilariak informatzeko duena:

Informazio hori jada eman zaio parlamentari horri, 10-22/PEI-00839 zenbakiko Parlamentuko informazio-eskaerari emandako erantzunean.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko otsailaren 6an

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

10-22/PES-00616. Galdera, Aranzadi Zientzia Elkarteak “Sorioneku” idazkuna duen eskua erregistratu izanari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Iñaki Iriarte López jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Aranzadi Zientzia Elkarteak “Sorioneku” idazkuna duen eskua erregistratu izanari buruzkoa. Galdera 2023ko urtarrilaren 13ko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Iñaki Iriarte López jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (10-22/PES-00616) Irulegiko Eskua erregistratzeari lotutako kontuei buruz. Hona Nafarroako Gobernuak Kultura eta Kiroleko kontseilariak ematen duen informazioa:

Nafarroako Gobernuak erregistratzearen berri noiz izan zuen egindako galderari dagokionez, informatzen ahal dizut Kultura eta Kirol Departamentuak Irulegiko Eskua iritzi publikoari aurkeztu eta bi egunetara jakin zuela Aranzadi elkarteak erregistro-eskaera egin zuela Espainiako Patenteen eta Marken Bulegoan.

Erregistratze hori babestu edo aurka agertu ote zen egindako galderari dagokionez, informatzen ahal dizut Nafarroako Gobernuak, Aranguren-ko Udalarekin elkarlanean, erregistratzei aurkaritzak formulatzea erabaki duela Espainiako

Patenteen eta Marken Bulegoan, eskatu duten pertsona, entitate edo enpresei eman ez dakien.

Antzeko erregistroen aurrekaririk ote dauden egindako galderari dagokionez, atsekabez jakinarazten dizut Kulturako Departamentuak ez duela eskura informazio hori.

Nafarroako Gobernuak alegazioak aurkeztea eta eskua bere izenean erregistratzea aurreikusiten ote duen egindako galderari dagokionez, aurrez aipatuenez, aurkaritzak formulatuko dira Espainiako Patenteen eta Marken Bulegoan. Bestalde, sortutako egoeraren aurrean, Gobernuak erregistro-eskaera propioa egitea erabaki zuen, kasu honetan kultur jarduerak egiteko (41. Izendegia), herritarrei babesa eta bermea emateko aurkikuntza horri buruzko edozein hedapen-ekimen egiteari begira.

Eta, Nafarroako Gobernuaren eta Aranzadi Elkartearen arteko harremanari lotutako kontuez bezainbatean, erantzun dezaket eskuari buruzko ikerketei eta hura balioan jartzei dagokienez Kultura eta Kirol Departamentuak Aranzadi Elkartearekin izan duen harremana eta komunikazioa egokia eta arina izan dela: aztarnategian aurkikuntza egin zenean, ikerketa-fasean, eskua aurkeztean eta herritarrei zabaltzeko egin diren askotariko ekintzetan.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2023ko otsailaren 6an

Kultura eta Kiroleko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

10-22/PES-00617. Galdera, eraldaketa eta espezializazio digitaleko estatuko lau proiektu garatze aldera 16 milioi baino gehiago inbertitzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, eraldaketa eta espezializazio digitaleko estatuko lau proiektu garatze aldera 16 milioi baino gehiago inbertitzeari buruzkoa. Galdera 2023ko urtarrilaren 13ko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma (Na+) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak galdera egin du, idatziz erantzun dakion, Retech funtsei buruz (10-22/PES-00617). Hona Nafarroako Gobernuak Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak horretaz ematen duen informazioa:

Nafarroako Gobernuaren aurreikuspenen arabera, zenbat denbora beharko da proiektua abiarazten denetik zentroa abian jarri arte? Zentroa non kokatzea aurreikusi dute? Noiz espero dute jasotzea 3 milioi euroak Espainiako Gobernuaren aldetik? Zer partidatetik eginen du Nafarroak gainerako 1,1 milioiko ekarpena?

Aurreikuspenen arabera, proiektuak hiru urteko iraupena du: 2023, 2024 eta 2025. RETECH proiektuen deialdira aurkeztutako memorian aurreikusitako denbora-aurreikuspenaren arabera, "Nafarroa Cybersecurity Center-en eraketa" jarduketako 2023ko lehen seihilekoan abiatuko da, eta une horretatik aurrera zentroak berak abiatuko ditu proposatutako proiektua osatzen duten gainerako jarduketako ildoak.

Data horiek proiektua formalizatzearen mende daude, Hitzarmenaren, Errege Dekretuaren edo zehazten den arau-tresnaren bidez, bai eta deialdia egin duen organoak tresnan bertan zehaztutakoaren mende ere. Arau-tresna hori berretsi beharko dute erakunde proposatzaileak, Ekonomia Gaietako eta Eraldaketa Digitaleko Ministerioak eta hautatutako proiektuaren parte diren gainerako autonomia erkidegoek.

Erakunde deitzailearen finantzaketa jasotzeko datak proiektuak arautzeko arau-tresnan zehaztuko dira; beraz, oraindik ezin dugu eman informazio hori.

Gaur egun, zentroaren behar materialak eta kokapena diseinatzen ari dira.

Proiektu honen kasu zehatzean, Nafarroak proiektuei dagokien zatia emateko erabiliko dituen partida zehatzak ez dira zehaztu oraindik, deialdia egin duen organoak arau-tresnan ezarritakoaren mende baitaude, hein handi batean, proiektua bera formalizatzeari eta finantzaketaren zati bakoitzari egotz dakizkiokeen gastuei dagokienez.

"Biki Digitaletan oinarritutako ekintzailaketa eta berrikuntza-ekosistemak bizkortzea" proiektua.

Aurreikuspenen arabera, proiektuak hiru urteko iraupena du: 2023, 2024 eta 2025. Datozen hilabeteetan, proiektuaren lehen urratsak izanen dira eskakizun eta behar funtzionalen analisia, biki digital irekiaren ereduaren diseinua eta erosketa publiko berritzaileko ekimenak abiatzea.

Hasiera batean, eta gaur egun eskura dugun informazioarekin, Espainiako Gobernuak 2023an zehar ematen ahal dizkio funtsak Nafarroari.

Nafarroak, bere aldetik, aurreikuspen bat egin du, alda daitekeena, eta behin-behineko ikuspegi hori kontuan hartuta, dirua honela inbertitzeko asmoa du:

- Exekututzen ari diren proiektuetatik datozen 807.500 € biki digitalen proiektura bideratuko dira.

- Iruñeko Udaletik datozen 379.000 €.

- Garraio eta Mugikortasunaren Zuzendaritza Nagusitik datozen 70.000 €.

Spain Living Lab proiektua (Adimen Artifiziala misio).

Aurreikuspenen arabera, proiektuak hiru urteko iraupena du: 2023, 2024 eta 2025. Honako hau da memoriarako eman zen hasierako aurreikuspena: Abian jartzeko, Ministerioak finantzaketa onartu beharko du, eta izapidetzea posible denetik aurrera exekutatu da.

1. blokea: JARDUKETAK ETA ALDERDI TEKNIKOA

Jarduketaren izena	Pertsonalizazio eta web-analitika plataforma, oinarri hartuta turistaren eta turismo-sektoreko profesionalaren jarrera.
Jarduketaren iraupena	Hasiera (hilabetea-urtea): 2023ko otsaila Amaiera (hilabetea-urtea): 2025eko abendua
Jarduketaren izena	Nafarroako Turismoaren Behatokiaren bilakaera Nafarroako Turismo DataHub-era.
Jarduketaren iraupena	Hasiera (hilabetea-urtea): 2023ko urtarrila Amaiera (hilabetea-urtea): 2025eko abendua

2. blokea: I+G MISIOA

Jarduketaren izena	1. jarduketa Zerbitzu eta esperientzien salmenta hobetzea ahots-laguntzaileen bidez
Jarduketaren iraupena	Hasiera (hilabetea-urtea): 2023ko urtarrila Amaiera (hilabetea-urtea): 2025eko abendua
Jarduketaren izena	2. jarduketa. Errealitate birtualeko murgiltze-jarduerak garatzea helmugaren aurkezpenerako eta salmentarako
Jarduketaren iraupena	Hasiera (hilabetea-urtea): 2023ko urtarrila Amaiera (hilabetea-urtea): 2025eko abendua
Jarduketaren izena	3. jarduketa. Simulatzaile bat garatzea customer journey-aren proiektiorako eta bezero jasagarrien balio potentzialerako
Jarduketaren iraupena	Hasiera (hilabetea-urtea): 2023ko urtarrila Amaiera (hilabetea-urtea): 2025eko abendua
Jarduketaren izena	4. jarduketa. Guest Experience Cyborg-erako errealitate areagotua sustatzea Nafarroako ostatuatan
Jarduketaren iraupena	Hasiera (hilabetea-urtea): 2023ko urtarrila Amaiera (hilabetea-urtea): 2025eko abendua

Oraindik ez dakigu nola jasoko dugun estatua-ren ekarpena; izan ere, Ministerioak dagokion tresna juridikoa argitaratzeko zain gaude.

Nafarroari dagokion aurrekontua honako partida hauen bidez emanen du:

83200	2061	432100	Lizentziak web-pertsonalizatzerako eta marketineko web-analitikarako (ReTECH)
83200	6090	432100	Laguntza teknikoa marketineko web-pertsonalizatzea garatzeko (ReTECH)

Proiektuak irauten duen 3 urteetarako aurreikusitako urte anitzeko gastua da.

TechFablab proiektua (ekintzailletza-sareak).

Aurreikuspenen arabera, proiektuak hiru urteko iraupena du: 2023, 2024 eta 2025. Erakunde deitzailearen finantzaketa jasotzeko datak proiektuak arautzeko arau-tresnan zehaztuko dira; beraz, oraindik ezin dugu eman informazio hori.

Nafarroak proiektuei dagokien zatia emateko erabiliko dituen partida zehatzak ez dira zehaztu oraindik, deialdia egin duen organoak arau-tresnan ezarritakoaren mende baitaude, hein handi batean, proiektua bera formalizatzeari eta finant-

zaketaren zati bakoitzari egotz dakizkiokeen gastuei dagokienez.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2023ko otsailaren 3an

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Juan Cruz Cigudosa García

Navarra Suma (Na+) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak galdera egin du, idatziz erantzun dakion, Retech funtsei buruz (10-22/PES-00617). Hona Nafarroako Gobernuo Unibertsitateko,

Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak horretaz ematen duen informazioa:

2023/02/03an (ostirala) bidalitako erantzunaren hedapen gisa, parlamentari jaunari jakitera ematen zaio funtsezko aldaketa bat egon dela Biki Digitaletan oinarritutako ekintzailatza- eta berrikuntza-ekosistemak bizkortzeko proiektuan.

Izan ere, behin baino gehiagotan esan dudana bezala, aurreikuspen hori denbora igaro ahala ixten eta berresten joaten da.

Hauxe da aldaketa:

Ministerioak 5,7 milioi euro ematea espero dugu.

Hortaz, proiektuan osotara inbertitzea espero dugun kopurua 7.696.000 € da; horietatik, Nafarroak 1.926.500,00 € jarriko ditu, honela banaturik:

- Exekutatzeko ari diren proiektuetatik datozen 1.156.500 € biki digitalen proiektura bideratuko dira.

- Iruñeko Udaletik datozen 650.000 €.

- Garraio eta Mugikortasunaren Zuzendaritza Nagusitik datozen 120.000 €.

Lehen eta hasierako erantzunean esan dizudan bezala, behin-behineko kopuru horiek jasotzea espero da, eta, beraz, denboran zehar gerta daitezkeen aldaketen menpe daude.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2023ko otsailaren 6an

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Juan Cruz Cigudosa García

10-22/PES-00618. Galdera, urte hau amaitu aurretik Nafarroako eta Espainiako Gobernuak beren zerbitzu publikoetan arreta presentzialaren maila pandemiaren aurreko mailetara igo dezaten premiatzen dituen mozioaren betetzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, urte hau amaitu aurretik Nafarroako eta Espainiako Gobernuak beren zerbitzu publikoetan arreta presentzialaren maila pandemiaren aurreko mailetara igo dezaten premiatzen dituen mozioaren betetzeari buruzkoa. Galdera 2023ko urtarrilaren 13ko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko otsailaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak galdera egin du (10-22/PES-0618) Parlamentuan onetsitako mozio bati buruz, zeinean Espainiako Gobernua eta Nafarroako Gobernua premiatzen baitziren zerbitzu publikoetan arreta presentzialaren maila pandemiaren aurreko mailetara itzul dadin. Hona Nafarroako Gobernuko lehendakariak ematen duen informazioa:

1.- Zer neurri abiarazi ditu Nafarroako Gobernuak, departamentuka xehatuta, eskaera hori betetze aldera?

Lehendakaritza, Berdintasuna, Funtzio Publikoa eta Barnea

Barne Zuzendaritza Nagusiari dagokionez, arreta lehentasunez modu presentzialesan egiten da, eta ez da eten COVID-19aren pandemiaren ondoren Polizia-etxe guztietako Herritarren Arretarako Bulegoak ireki zirenetik.

Nafarroako Gazteriaren Institutuan zerbitzua pandemiaren aurreko baldintza berberetan ematen ari da.

Hala Indarkeria Artatzeko Zerbitzuak nola Nafarroako Berdintasunerako Institutuak berak modu presentzialesan ematen dute arreta, pandemiaren aurretik egiten zen modu berean.

Lurraldearen Antolamendua, Etxebizitza, Paisaia eta Proiektu Estrategikoak

Arreta presentziala, telefono bidezkoa eta email bidezkoa ditu, baita emailean oinarritutako izapidetze elektronikoa ere. Herritarren Arretarako Bulego orokorrarekin eta Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Erregistroarekin lankidetzan lan egiten da.

Arretaren lagungarri gisa, www.vivienda.navarra.es Nafarroako Gobernuko etxebizitza-atariko informazioa dago.

Lurralde Kohesioa

Erabateko arreta presentziala 2020ko uztailearen 13an berreskuratu zen, eta aurretik ematen zenarekin alderatuta egon den aldaketa bakarra izan da garai batean bileretan arau bidez ezartzen joan ziren edukiera-mugak.

Ekonomia eta Ogasuna

Pandemiarekin beharrezkoa izan zen abian jartzea kanal telefoniko eta telematikoetan oinarritutako laguntza eta argibideak emateko zerbitzu berriak. Kanal eta zerbitzu horien erabilera eta onarpena areagotzen joan da, eta zergadun askorendako lehentasunezko kanal gisa finkatu dira.

Garapen Ekonomikoa

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuak herritarrei erabateko arreta emateko bi zerbitzu ditu: alde batetik, lurraldean zehar banatutako Informazio Turistikoko Bulegoak; eta, bestetik, Kontsumo Zerbitzua. Zerbitzu horiek arreta presentzialari eusten diote modu normalizatuan. Gainera, azken bi urteetan Kontsumo Zerbitzuak hobetu egin du entzumen-desgaitasuna duten pertsonen ematen dien arreta.

Migrazio Politikak eta Justizia

Justiziako zerbitzu publikoan eta Nafarroako Gobernuko Justizia Zuzendaritza Nagusiko bulegoetan ez zaio inoiz utzi arreta presentziala emateari.

Hezkuntza

Nafarroako Gobernuako Departamentuko zerbitzu zentraletan 2022ko otsailean ekin zitzaion berriro arreta presentzialari.

Eskubide Sozialak

Osasun-arriskuak arreta presentziala ahalbidetzen zuenean, Eskubide Sozialetako Departamentuak arreta hori berreskuratu zuen arreta eten zen kasu bakanetan, eman beharreko zerbitzuen funtsa zela eta.

Osasuna

COVID-19aren fase larriaren ondoren, Oinarriko Osasun Laguntzako zentroetan presentzialitatea pandemiaren aurreko mailetara itzuli da.

Herritarrekiko Harremanak

2022ko irailaren 1etik, Herritarrekiko Harremanetako Departamentuak modu presentzialean ematen dizkie zerbitzu guztiak herritarrei.

Unibertsitatea, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitala

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuak ez du herritarrendako arreta presentzialik ematen. Deialdi guztietan zalantzak argitzeko telefono-zenbaki eta posta elektronikoko helbide bana daude. Harremanetan jartzeko bi modu horiek beti eskuragarri daude.

Landa Garapena eta Ingurumena

Dibertsifikazio eta Landa Garapeneko Zerbitzuak erabat berrezarrita dauka herritarrei ematen dizkien zerbitzuen aurrez aurreko arreta-maila, honako dirulaguntza hauek kudeatzeko:

- 1) Landa-eremuetan nekazaritzaz bestelako jarduerak sortzeko laguntzak.
- 2) Nekazaritzaz bestelako jarduerak sortu eta garatzeko inbertsioei babesa ematekoak.
- 3) Proiektu pilotuetarako eta produktu, prozesu eta teknologia berriak garatzeko laguntzak ematekoak.

Kultura eta Kirola

Kultura eta Kirol Departamentuan arreta presentzial osoa ematen da. Zerbitzuetan presentzialtasunaren % 100 berreskuratu da.

2.- Zer neurri abiarazi ditu Espainiako Gobernuak Nafarroako Foru Komunitatean egoitza duten Estatuaren erakundeetan eskaera hori betetze aldera?

Nafarroako Gobernuak ez du estatuko erakundeetara buruzko informaziorik. Parlamentariak Administrazio horri eskatu beharko dio informazio hori, legalki gaitutako bideen bitartez.

Nafarroako lehendakaria: María Chivite Navascués

10-22/PES-00619. Galdera, 2021-2025 aldirako Nafarroako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Planari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galderen erantzuna, Foru Diputazioak emana, 2021-2025 aldirako Nafarroako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Planari buruzkoa. Galdera 2023ko urtarrilaren 13ko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, Nafarroako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planari buruzkoa (10-22/PES-00619). Hona Nafarroako Gobernuo Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak horretaz ematen duen informazioa:

10-22/00843 informazio-eskaeran emandako informazioa berresten dut:

Departamentuarteko Batzordeari dagokio egitea eskatzen duzun txosten hori, eta gaur egun organo hori eraketa-fasean dago, Gobernuaren erabaki bidez.

Hori dela-eta, behin Departamentuarteko Batzordea eratuta, Nafarroako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Planari dagozkion gaurdainoko txostenak egingen ditu.

Gardentasunaren mesedetan, kontseilari gisa Nafarroako Parlamentuan agerraldia egitea eskatuko dut txosten horretan jasotako xehetasunen berri emateko.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2023ko otsailaren 3an

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Juan Cruz Cigudosa García

10-22/PES-00620. Galdera, Inklusio eta Gaikuntza Digitalaren 2021-2025 aldiko Planari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betetz, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Inklusio eta Gaikuntza Digitalaren 2021-2025 aldiko Planari buruzkoa. Galdera 2023ko urtarrilaren 13ko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko otsailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioko kide Ángel Ansa Echegaray jaunak idatziz erantzuteko galdera bat egin du Inklusio eta Gaikuntza Digitalaren 2021-2025 aldiko Planaren betetze xehakatuari buruz (10-22/PES-00620). Hona

hemen Nafarroako Gobernuko Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariaren erantzuna:

Inklusio eta Gaikuntza Digitalaren 2021-2025 aldiko Planak foru erkidegoko eten digitalaren murrizketa jorratzen du, bi alderditan: nafarren inklusio digitala sustatu eta gaitasun digitalak bultzatzen ditu.

Horrenbestez, plan bizi eta dinamikoa da, eta zenbait ekimen biltzen ditu sarbide, alfabetatze eta gaikuntza digitalari dagokienez, hobetzeko beharra edo aukera hautematen den guztietan, eta, beraz, etengabeko bilakaera du.

Honi atxikita doaz 2022ko koadroak, eta bertan zehaztuta datoz ekimenak, haien betetze-egoera, gauzatutako gastua eta Nafarroako aurrekontu orokorretan horri dagokion diru-partida.

2022

Ekimena	Egoera	Aurrekontua	Partida
1. E. Herritarrak sentsibilizatzea IKTen erabilerak eskaintzen dituen aukera eta onuren gainean.	Egiten ari da (SEM funtsak konpromisoan)	242.768,11 euro	G30001/G3100/2269/921C02 "SEM C1911Enkargua Nasertici. Alfabetatze digitalaren aurrez aurreko ikastaroak"
2. E. Migratzaileen eta errefuxiatuen inklusio digitala bultzatzea, baita nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonena ere.	Egiten ari da	299.266 euro	F10001 F1100 2279 231902
3. E. Ekipamendu informatikoak eta telefono mugikorren terminalak eskuratzeko zuzkidura.	Egiten ari da.		SEM kudeaketa-plana onartuta. Planak gutxienez 3.436 gailuko zuzkidura-jarduketa bat jasotzen du.
4. E. Prestakuntza eta gaikuntza ekipamendu informatiko eta telefono mugikorren terminalen arloan.	Zehazten ari da		Gaikuntza jarraibideen edo Moodle ikastaro baten bidez izanen da.
5. E. Nafarroako adinekoen kolektiboaren alfabetatze digitalaren gaikuntza eta sustapena.	Egiten ari da	25.391,20 €	G30001 G3100 2269 921C00 G30001 G3100 2269 921C03
6. E. Bultzada ematea oinarritzko alfabetatze digitalari eta lehen mailako gaitasun digitaletan gaitzeari.	Egiten ari da	24.604,64 €	G30001 G3100 2269 921C00 G30001 G3100 2269 921C03

Ekimena	Egoera	Aurrekontua	Partida
7. E. Gaikuntza oinarrizko gaitasun digitaletan desgaitasuna duten pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko.	Egiten ari da	3.948,10 €	G30001 G3100 2269 921C00
8. E. Sentsibilizazio-ekintzak IKTen erabilera arduratsua eta seguruan oinarritutako kultura digital bat sustatzeko (1. ekimenaren barruan)	Planifikatzen ari da (SEM funtsak konpromisopean)	1. ekimenean sartuta.	G30001/G31002269921C02 "SEM C1911Enkargua Nasertici. Alfabetatze digitalaren aurrez aurreko ikastaroak"
9. E. Bazterketa digitala pairatzen duten ikasleei sarbidea emateko zuzkidura.	Egiten ari da	8.296,55 €	420006 42200 2224 322A02
10. E. Hezkuntza berrikuntzarako baliabide digitalen zuzkidura.	Egiten ari da		Lizentzia digitalen erabilera matematika-mentoretzako programetan.
11. E. Oinarrizko gaitasun digitalei buruzko prestakuntza-ekintzak, seme-alabak eskolara joateko adinean dituzten senideen inklusiorako.	Zehazten ari da		Hezkuntza Departamentuarekin lanean, ekintzak bukatze aldera.
12. E. Prestakuntza eta gaikuntza gaitasun digitaletan bizitza osoan zehar.	Egiten ari da	16.000 €+BEZa	Ministerioak finantziarioa NUPi zuzenean ematen dio, unibertsitate-sistema modernizatzeko eta digitalizatzeko planaren bidez. (C.21)
13. E. Nafarroako Eskola-hezkuntzako ikasleen artean STEM bokazioak sustatzeko sentsibilizazio-ekintzak.	Egiten ari da	59.000 euro	G1001 G1100 4455 322304 G1001 G1100 4819 322305
14. E. Irakasleak gaitasun digitaletan trebatzeko prestakuntza eta gaikuntza.	Egiten ari da	9.000 €+BEZa	Ministerioaren finantzaketa NUPi zuzenean
15. E. Bultzada helduen laneratzeko oinarrizko gaitasun digitalen garapenari.	Egiten ari da	20.000 euro	950002 96200 2276 242102
16. E. Gaikuntza laneratzeko gako diren oinarrizko gaitasun digitaletan.	Egiten ari da	21.840 euro	95002 96200 2276 242110
17. E. Gaikuntza oinarrizko gaitasun digitaletan desgaitasuna duten pertsonen enplegarritasuna bultzatu eta hobetzeko .(15. ekimenaren barruan)	Egiten ari da	15. ekimenean gauzatu da	950002 96200 2276 242102
18. E. Gaikuntza lan-merkatuako espezializatutako gaitasun digital aurreratueta.	Egiten ari da	100.200 €	950002962002276242102

19. E. Bultzada lanbide tekniko eta zientifikoetan aritu eta ardura-postuetan dauden emakumeen lidergoari eta garapen profesionalari.	Egiten ari da	Amaitzeke fakturazioa egiteko.	
20. E. Bultzada Nafarroako enpresa-ehunduraren eta bereziki enpresa txiki eta ertainen gaikuntza digitalari.	Egiten ari da	14.433,35 euro	95002 96200 2276 242102
21. E. Enpresa txiki eta ertainetako enpresari eta zuzendaritza-kideen sentsibilizazio eta gaikuntzarako lantergiak eta mintegiak egitea (20. ekimenaren barruan).	Egiten ari da	20. ekimenean gauzatu da	95002 96200 2276 242102
22. E. Lankidetzeta-hitzarmena beste autonomia-erkidego batzuekin baliabideak, tresnak eta prestakuntza-edukiak prest egoteko.	Gauzatua	Lankidetzeta denez, ez du aurrekonturik	
23. E. Gaitasun digitalen autoebaluazioko, edukietako eta egiaztapeneko plataforma bat garatzea.	Gauzatua	20.925,74 euro	G30001 G3100 6090 921C00 G30001 G3100 6091 469100
24. E. Gaitasun digitaletako zentroyen edo telezentroyen sare bat sortzea.	Proiektu pilotua Liburutegi Zerbitzuarekin. Ikasgela Mendebaldean. Egiten ari da	3.968,32 euro	Liburutegi Zerbitzuko partida
25. E. Nafarroako Gobernuan garatutako ekintzak eta ekimenak ezagutzera emateko Komunikazio Plana diseinatzea.	Egiten ari da	53.000 euro	G30001 G3100 2262 921C00
26. E. Planaren kontrola eta jarraipena egiteko batzorde bat sortzea.	Egiten ari da	42.350 euro	G30001 G3100 6091 469100
27. E. Planaren jardueren eta planak 2030erako Nafarroako Estrategia Digitalean zehaztutako helburuetan duen eraginaren jarraipen operatiboa egiteko tresna bat garatzea.	2021ean gauzatua		
28. E. Herritarren gaitasun digitalak ebaluatzeke tresna bat garatzea (23. ekimenaren barruan).	Gauzatua	23. ekimenean gauzatu da	G30001 G3100 6090 921C00 G30001 G3100 6091 469100

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua xedaturikoa betez.

Iruñean, 2022ko otsailaren 8an

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa
Digitaleko kontseilaria: Juan Cruz Cigudosa García

10-22/PES-00621. Galdera, “G10001 G1100 4309 322300 ADITECH Fundazioa. Adimen artifizialaren sustapena” partidari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, “G10001 G1100 4309 322300 ADITECH Fundazioa. Adimen artifizialaren sustapena” partidari buruzkoa. Galdera 2023ko urtarrilaren 13ko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, “G10001 G1100 4309 322300 ADITECH Fundazioa. Adimen artifizialaren sustapena” partidari buruz (10-22/PES-00621). Hona Nafarroako Gobernuak Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak horretaz ematen duen informazioa:

Partidan aurreikusitako ekintzen xehaketa, bai eta horietako bakoitzerako zenbatetsitako aurrekontua ere.

2023rako aurreikuspen gisa, honako ekintza hauek daude, eta aipatu nahi dizut aurreikuspen hori oraindik ere lantzeko fasean dagoela, 2023rako hitzarmen hori ahalik eta lasterren sinatu ahal izateko.

- Zentroa abian jartzeko organigramaren diseinua, baita zentrorako lanpostu-profilak eta langile-ria-beharrak ere.

- Kontratazio berrien hautaketa.

- Adimen artifizialeko ikerketa-ildoak abian jarzea.

- Gobernantza eredu baten diseinua.

- Plan estrategikoaren eta jasangarritasunekoaren diseinua.

- NUPekin lankidetzak-hitzarmen bat idaztea.

- Azpiegitura eta ekipamenduetarako plana egitea.

- Nafarroako I+G+b Sistemak (SINAI) txertatzeko izapideak abiatzea.

- Europako finantzaketa-programetan (2023-2027) parte hartzeko estrategia egitea.

Kontzeptua	Zenbatekoa
LANGILEAK: Gerentzia, ikertzaileak eta teknikariak	155.000 €
KANPO-LANKIDETZAK: lankidetzak unibertsitateekin, OTRI kontratuak eta aholkularitza espezializatuak.	110.000 €
BIDAIA-GASTUAK, MUGIKORTASUNEKOAK ETA ORDEZKARITZAKOAK	11.500 €
BESTELAKO GASTUAK: Renting bidezko ekipamendua, azpiegiturak eta bestelako zerbitzu espezializatuak	23.500 €
Guztira	300.000 €

2.- Partida 100.000 €-an bakarrik handitu da 2022rekin alderatuta; horrek esan nahi al du Nafarroako Gobernuak uko egiten diola “Adimen Artifizialaren arloko Ikerketarako Nazioarteko Zentroa (C3IA)” 2023an abiarazteari?

Adimen Artifizialaren arloko Ikerketarako Zentroaren partida % 50 handitu da.

Horrek argi uzten du Nafarroako Gobernuak zentroa sortzearen aldeko apustua egiten duela, aurreikusitako eginkizunetarako beharrezko inbertsioa ematen baitio.

3.- Aurreko galderaren erantzuna baiezkoa bada, noiz aurreikusten du Gobernuak abiaraziko duela zentroa?

Lehen aipatu dudak bezala, Nafarroako Gobernuak zentro horrekiko duen apustua berekin dakar 2023rako aurrekontuan ezarritako zenbatekoaren % 50eko igoera.

4.- 2. puntuko galderaren erantzuna ezezkoa bada, zer urrats egingen ditu Nafarroako Gobernuak 2023an zehar zentroa abiarazteko?

Zentroa martxan dago eta lanean ari da 2022ko lehen sei hilekotik, gerentziarako pertsona bat eta ikertzaile bat kontratatu zirenetik.

Horrez gain, aurrekontu bat ezarri zen eta hitzarmena egin zen Aditech Fundazioarekin.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2023ko otsailaren 3an

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Juan Cruz Cigudosa García

10-22/PES-00622. Galdera, Sodena, CEN eta Albyn Medicalen arteko hitzarmenaren esparruan maskarak erosteari dagokionez “eskarien izapidetzeak eragindako gastuen” 2.564.354 euroen banakapenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Sodena, CEN eta Albyn Medicalen arteko hitzarmenaren esparruan maskarak erosteari dagokionez “eskarien izapidetzeak eragindako gastuen” 2.564.354 euroen banakapenari buruzkoa. Galdera 2023ko urtarrilaren 13ko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatzizko galdera aurkeztu du (10-22/PES-00622), Sodena, CEN eta Albyn Medicalen arteko hitzarmenaren esparruan maskarak erosteari dagokionez “eskarien izapidetzeak eragindako gastuen” 2.564.354,29 euroak banakatzeari buruz. Hona Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilari Mikel Irujo Amezaga jaunaren erantzuna:

“Pandemian enpresa txiki eta ertain, mikroETE eta langile autonomoentzat NBEak erosteko lankidetzarako eta finantza-laguntzarako hitzarmenaren” inguruan Kontuen Ganberak 2022ko abenduaren 16an emandako txostenean jasotzen den bezala, eskarien izapidetzeak eragindako gastuak 2.564.354,29 eurokoak dira.

Finantza-laguntza zubi-kredituko lerro baten bidez ematea onetsi zuen Sodenako administrazio-kontseiluak, 2.000.000 euroko gehieneko arriskuarekin, enpresa lankide batek hornitzaileei ordainketa aurreratua egin ahal izateko, enpresen hornidura bermatzeko asmoz.

Horri dagokionez, gogora ekarri behar da bankuko zubi-kredituko lerro baten ohiko operatiba, onuradunei edo erakundeei aldi baterako finantzaketa jakin bat edukitzeko aukera ematen diena. Horretarako, beharrezko ordainketak egiteko muga finko bat duen kontu bat erabiltzen da, eta hari egiten zaizkio egindako salmentengatik dagozkion diru-sarrerak, ordainketa horiek konpentsatuz doazenak eta aukera ematen dutenak hurrengo erosketak finantzatzen jarraitzeko, betiere adierazitako arrisku bizia (kasu honetan, 2.000.000 eurokoa) inoiz gainditu gabe.

Operatiba hori bera erabili zen Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua babes-materialez hornitzeko akordioan, 2.500.000 euroko gehieneko arriskua duen zubi-kredituko lerro baten bidez, zeina Sodenako administrazio-kontseiluak ere baimendu baitzuen. Horretarako, aipatu kopurutik gorako eskariak egin ziren, betiere inoiz gainditu gabe baimendutako 2.500.000 euroko arrisku bizia.

Horrela, lehen aipatutako 2.564.354,29 euroko zenbatekoa enpresa laguntzaileak egindako sei eskariren ordainketen kopuruaren batuketa da, Kontuen Ganberak ere aipatu txosten horretan argitara ematen duen xehetasun honen arabera:

	Ordainketaren datak	Materiala	Unitateak	Eskarrien ordainketak (€)
1	2020/05/13	FFP2	69.760	167.270,40
	2020/05/26	FFP2	85.680	255.915,00
	2020/06/19	FFP2	151.760	413.166,60
				836.352,00
2	2020/05/13	FFP2	29.000	72.059,42
3	2020/05/18	Termometroak	300	8.098,50
4	2020/05/18	Gel hidroalkoholikoa	600	15.224,22
5	2020/05/22	FFP2	600.000	504.000,00
	2020/06/22	FFP2		504.000,00
				1.008.000,00
6	2020/06/19	IIR kirurgikoak	336.000	174.820,80
	2020/06/23	IIR kirurgikoak	560.000	291.368,00
	2020/07/13	IIR kirurgikoak	304.500	158.431,35
				624.620,15
			ORDAINKETAK, GUZTIRA	2.564.354,29

CENek babes-materiala saldu ondoren kontuan egindako kobrantzak 774.388,32 eurokoak (BEZa barne) izan ziren, eta 210.034,03 euroko saldoa geratu zen kontuan. Hortik Sodenako kontuan transferitutako zenbatekoa 210.000,03 eurokoa izan zen, eta baterako kontuan 34 euroko saldoa utzi zuen. Azken batean, inoiz ez zen gainditu emandako 2.000.000 euroko arriskua.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua xedatua betez.

Iruñean, 2023ko otsailaren 3an

Mikel Irujo Amezaga, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilaria

